



AURKIBIDE OROKORRA

I. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Denbora- eta jarduera-esparrua.
2. artikulua. Osaera eta zenbatekoa.
3. artikulua. Indarraldia.
4. artikulua. Edukia.
5. artikulua. Kredituen erregimena eta lotespen-mailak.
6. artikulua. Luzamenduaren araubidea.
7. artikulua. Diru-sarrerak. Egitura ekonomikoa.
8. artikulua. Finantza-plana.

II. KAPITULUA.- AURREKONTU-KREDITUAK ETA HORIEN ALDAKETAK

9. artikulua. Gastuen egoeraren egitura.
10. artikulua. Dirulaguntzei buruzko baldintza orokorrak. Hitzarmenen erregimen orokorra.
11. artikulua. Aurrekontu- eta kontabilitate-aplikazioa.
12. artikulua. Ordainketa-kredituak.
13. artikulua. Aldez aurreko tramitazioa.
14. artikulua. Kreditu globala.
15. artikulua. Pertsonal-kredituak.
16. artikulua. Konpromiso-kredituak.
17. artikulua. Kudeaketa-kredituak.
18. artikulua. Gastu kofinantzatuak.
19. artikulua. Kreditu zabalgarriak.
20. artikulua. Obligazioen eraginkortasuna.
21. artikulua. Aurrekontu-aldaketen erregimena.
22. artikulua. Kreditu-transferentziak.
23. artikulua. Kreditu-gaikuntza.
24. artikulua. Kreditu-txertaketa.
25. artikulua. Kreditu osagarriak.
26. artikulua. Kreditu zabalgarriak.
27. artikulua. Deuseztatze-bajak.
28. artikulua. Udal sozietate publikoen gastu-mailari eutsiz egindako aldaketak.

III. KAPITULUA.- AURREKONTUAK EXEKUTATZEA

29. artikulua. Diru-sarrera exekutatzea eta bilketa-aldia.
30. artikulua. Gastua exekutatzea.



- 31. **artikulua.** Eskumenak.
- 32. **artikulua.** Kreditu ez-erabilgarriak eta kreditu-atxikipena.
- 33. **artikulua.** Gastua baimentzea.
- 34. **artikulua.** Gastua xedatzea.
- 35. **artikulua.** Betebeharra onartzea.
- 36. **artikulua.** Euskarri-dokumentazioa.
- 37. **artikulua.** Betebeharrak onartzeko agiri nahikoak.
- 38. **artikulua.** Ordainketa agintzea.
- 39. **artikulua.** Administrazio-prozedura. Baimentzea, xedatzea.
- 40. **artikulua.** Xedatzea eta betebeharra.
- 41. **artikulua.** Baimentzea edo xedatzea eta betebeharra (ADO).
- 42. **artikulua.** Langile-gastuak.
- 43. **artikulua.** Ekarpen eta dirulaguntzak izapidetzea.
- 44. **artikulua.** Inbertsio-gastuak.
- 45. **artikulua.** Justifikatu beharreko ordainketa-aginduak.
- 46. **artikulua.** Kutxa finkoko aurrerakina.
- 47. **artikulua.** Kredituak deuseztatzea.

IV. KAPITULUA.- AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

- 48. **artikulua.** Ekitaldia ixtea.
- 49. **artikulua.** Dokumentazioa.
- 50. **artikulua.** Aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako geldikina.
- 51. **artikulua.** Geroko izapideak.

V. KAPITULUA.- UDAL DIRUZAINZTA ETA FINANTZA-KUDEAKETA

- 52. **artikulua.** Esparrua eta kontrola.
- 52. **artikulua.** Funtzioak.
- 53. **artikulua.** Diruzaintzako funtsak.
- 54. **artikulua.** Diru-sarrerak eta ordainketak egiteko metodoak.
- 55. **artikulua.** Diruzaintzako eragiketak.
- 56. **artikulua.** Jasotako abalak eta bermeak.
- 57. **artikulua.** Eskumena.
- 58. **artikulua.** Diruzaintzako erregistroa.
- 59. **artikulua.** Diruzaintzako finantza-plana.
- 60. **artikulua.** Zorpetzea. Abalak. Bermeak ematea.

VI. KAPITULUA.- GASTEIZKO UDALEKO KONTULARITZA

- 61. **artikulua.** Erregimen aplikagarria.
- 62. **artikulua.** Kontabilitatearen helburuak.



- 63. **artikulua.** Kontabilitate-indarraldia.
- 64. **artikulua.** Urteko egoerak eta kontuak.
- 65. **artikulua.** Landu eta onesteko prozedura.
- 66. **artikulua.** Informazioa.

VII. KAPITULUA.- KONTU-HARTZE KONTROLA

- 67. **artikulua.** Barne-kontrolaren modalitateekiko lotura.
- 68. **artikulua.** Kontu-hartze zeregina, diru-sarrerei dagokienez.
- 69. **artikulua.** Kontu-hartze zeregina, gastuei dagokienez.
- 70. **artikulua.** Etengabeko kontrola, gastuen arloan, lagin baten gainean.
- 71. **artikulua.** Eragozpenak.
- 72. **artikulua.** Kontu-hartze zeregina ez egitea.
- 73. **artikulua.** Finantza-kontrola.
- 74. **artikulua.** Finantza-kontrola planifikatzea.
- 75. **artikulua.** Barne kontrolaren emaitzak.
- 76. **artikulua.** Ekintza-plana.
- 77. **artikulua.** Udal Kontu Hartzaitzak egin beharreko bestelako txostenak.



I. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

1. artikulua: Denbora- eta jarduera-esparrua.

1. Udal aurrekontuak onetsi, kudeatu eta likidatzeko orduan, Aurrekontuak Exekutatzeko Udal Araudi honetan agindutakoari men egin beharko zaio, zeinak aurrekontuen indarraldi bera izango baitu, eta, bertan jasotakoa eskas egokituz gero, Araba Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak xedatutakoari.
2. Udal aurrekontuak luzatu behar izanez gero, luzapen-aldian ere aintzat hartu beharrekoa izango da araudi hau.
3. Gasteizko Udalaren, haren erakunde autonomoen eta udal sozietate publikoen aurrekontuak exekutatzeari aplikatuko zaio araudi hau izaera orokorrekarekin, horiei aplikatzekoak diren baldintzetan.

Hauek dira aurreko atalean aipatzen diren udal sozietate publikoak eta toki-erakunde autonomoak:

- Udalak kapital edo funts sozialaren % 50etik gorako partaidetza duen udal sozietate publikoak:
 - o Ensanche 21 Zabalgunea SA
 - o AMVISA (Gasteizko Udal Urak SA)
 - o TUVISA (Gasteizko Hiri Garraioak SA)
 - o GILSA (Gasteizko Industria Lurra SA)
- Toki-erakunde autonomoak:
 - o Jose Uruñuela udal dantza kontserbatorioa
 - o Luis Aramburu Udal Musika Eskola
 - o Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI)

Baldin eta udal araudi hau indarrean den bitartean eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek Kontzertu Ekonomikoa onesteko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 48. artikuluko 5. apartatua garatzen badute udalen finantza-erregimenari dagokionean, hartara egokituko du Udalak araudi hau, Gobernu Batzarraren erabakia dela medio, Kontu Hartzailtza Nagusiak txostena egin ondoren.

2. artikulua: Osaera eta zenbatekoa.

Gasteizko Udalaren egungo ekitaldirako aurrekontu orokorrak onesten dira. Aurrekontu orokor hauetan, Gasteizko Udalaren aurrekontua eta haren menpeko erakunde autonomoen eta kapital sozialaren % 50etik gora Udalarena den sozietate publikoenak biltzen dira. Gasteizko Udalak kapitalaren edo funts sozialaren % 50etik gorako partaidetzarik ez duen erakundeetan, udal aurrekontuak dira Gasteizko Udalak entitate horietan jarduteko duen planifikazio ekonomikoa.

3. artikulua: Indarraldia.

Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorren indarraldia urte naturalarekin bat etorriko da.



Udal enpresa publikoen ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da, eta egindako eragiketen kontabilitate-aplikaziorako, sortzapen-datari erreparatuko zaio.

4. artikulua: Edukia.

Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorrek Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan xedatutakoaren arabera aurkezten dute aurrekontu-informazioa. Bestalde, Arabako Lurralde Historikoko Toki Entitatearen Kontabilitatearen araudia onetsi zeneko 56/2015 Foru Dekretura egokitu da egitura funtzionala.

5. artikulua: Kredituen erregimena. Lotespen-mailak.

1. Baimendutako kredituek izaera mugatzailea eta loteslea dute.
2. Erakundearen aurrekontu orokorrean edo behar bezala onetsitako aurrekontu-aldaketetan baimentzen diren helburu zehatzetarako eta ez bestetarako baliatu beharko dira gastu-kredituak.
3. Ekitaldi honetarako lotespen-mailak ondorengo hauek izango dira:
 - 3.1. Pertsonal-gastuei dagokienez: kapitulu ekonomikoa.
 - 3.2. Ondasunak erosteari eta zerbitzuak kontratatzeari dagokionez: saila, gastu-arloa eta artikulua.

Sailak: 02 Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena, 03 Segurtasuna, 23 Kultura eta Hezkuntza eta 24 Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetzak. Zerbitzu-maila, gastu-arloa eta artikulua lotuko dituzte.
 - 3.3. Interesei dagokienez, gastu-arloaren eta kapituluaren mailan.
 - 3.4. Gastu arruntetarako eta kapital-gastuetarako transferentzia- eta dirulaguntzei dagokienez, baita finantza-aktiboen aldakuntzari dagokionez ere: sailaren, gastu-arloaren eta kontzeptuaren mailan.

Sail hauek zerbitzu-mailan, gastu-arloan eta kontzeptuan lotuko dituzte: 02 Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena, 03 Segurtasuna, 23 Kultura eta Hezkuntza eta 24 Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetzak.
 - 3.5. Inbertsio errealak sailaren, gastu-arloaren eta kontzeptuaren mailan lotetsiko dira.

Sail hauek zerbitzu-mailan, gastu-arloan eta kontzeptuan lotuko dituzte: 02 Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena, 03 Segurtasuna, 23 Kultura eta Hezkuntza eta 24 Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetzak.
 - 3.6. Programaren mailan:
 - a) Antolamendu organikoko 16. sailaren (Administrazioa Modernizatzea, Mantentzea) 9215 programako ("Energia-efizientziaren kontratua") aurrekontu-aplikazio guztiak.
 - b) 1692 programa funtzionaleko ("Gasteiz hobetuz") aurrekontu aplikazio guztiak.
 - 3.7. Beste batzuk: bere buruarekin lotetsiko dira aurrekontu-kreditu hauek —izaera mugatzailea eta loteslea izango dute, gastuen egoeran ageri diren bereizte-mailarekin—:
 - a) Aurreko ekitaldietatik datozen kreditu-geldikinak.
 - b) Aplikazio berriak sortzea dakarten kreditu-gaikuntzak.
 - c) Handigarritzat definituak.
 - d) Dirulaguntza izendunei dagozkienak.



e) Finantzaketa atxikia duten gastuen ordainketa-kredituak: Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren funtsak, Europar Batasunetik datozenak, eta Zaramaga auzorako Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Planaren funtsak, Eusko Jaurlaritzatik datozenak.

f) Konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa-kredituak.

4. Erakunde autonomoetan, aurrekontu-aplikazioen lotespen-maila Udalerako definitutako bera izango da.
5. Udal sozietate publikoetan, transferentzia eta dirulaguntza arruntetarako nahiz kapital-transferentzietarako ordainketa-kredituek bakarrik izango dute izaera mugatzailea.
6. Kredituen lotespen-maila edozein delarik ere, dagozkien aurrekontu-aplikazioei aplikatuko zaizkie gastuaren kontabilizazioa eta kreditu-aldaketak beti.
7. Gasteizko Udalaren erabaki, xedapen, ebazpen eta egintzen bidez gastuen egoera-orrian baimendu diren izaera mugatzaileko kredituen zenbatekoa baino handiagoak diren gastu-konpromisoak hartu nahi badira, egintza horiek erabat ezdeusak izango dira, horrek ekar lezakeen erantzukizuna gorabehera.

6. artikulua: Luzamenduaren araubidea.

Ekitaldia hastean hari dagozkion aurrekontu orokorrak artean indarrean jarri ez badira, besterik gabe luzatutzat joko dira aurreko ekitaldikoak, zehaztasun hauek aintzat hartu beharko badira ere:

1. Luzatzen diren ordainketa-kredituak bukatzen den aurrekontu-ekitaldiko azken egunera arte onetsitako zenbatekokoak izango dira. Alkate lehendakariak erabakiko du, dekretu bidez, aurrekontu-luzapena, luzatutako kredituek ez dezaten barne har bukatzen den ekitaldian amaitu beharreko aldaketarik.
2. Aurrekontu-aldaketetarako erregimenak araudi honetan jasotzen direnak izango dira.
3. Ez dira luzatuko aurreko ekitaldian bukatu beharreko zerbitzu edo programa-multzoetara zuzendutako kredituak, ezta ekitaldi horretan bakarrik jasotzekoak ziren berariazko kreditu eta sarrera atxikien bitartez finantzatutakoak ere.
4. Gehienez eta behin-behingo, langileen ordainsariak luzatzen den ekitaldian baimendutako ehuneko berean —banaka aplikatuta— igotzea onetsi ahal izango da, baita aurreko paragrafoetan adierazitako gastu-kredituen aldakuntzak ere, luzapen-erregimena Udalaren benetako zirkunstantzia ekonomiko eta finantzarioetara egokitzeko. Era berean, eta langile-gastuetarako, baimena ematen zaio alkateari aurrekontu luzatua izango duen ekitaldirako aurreikusitako pertsonal-kostu osoa luzatzerik izan dezan.
5. Gastuen egoera-orriaren 3. kapituluari (Maileguen interesak) eta 9. kapituluari (Finantza-pasiboen aldaketa) dagozkien kredituak luzatu egingo dira, luzatzen den ekitaldirako aurreikusitako finantza-kargarekin.
6. Konpromiso-kredituak automatikoki luzatuko dira, luzatzen den ekitaldirako dagoeneko onetsita dauden zenbatekoetan, gastua baimendu gabe bi ekitaldi baino gehiago daramatenak salbu.
7. Luzatutako gastuen gainean luzatutako diru-sarreraren superabita baldin badago, korporazioko lehendakariak gorako doikuntzak egin ahal izango ditu, kontu-hartzaileak txostena egin ondoren. Doikuntza horiek ezingo dituzte jaso, inolaz ere, aurrekontu-partida berriei dagozkien ordainketa-kredituak, ezta errepikakorrak ez direnak ere, luzapenaren ekitaldian behar bezala hartutako konpromiso eta betebeharretatik eratorritako gastuak salbu.
8. Aurreko ekitaldikoak abiapuntutzat harturik, luzapen-aldiko diru-sarreraren aurreikuspenak onetsiko bide diren benetako diru-sarreretara egokituko dira.



9. Ekitaldian likidatzea aurreikusten den diru-sarrera handiagoak finantzaketa-iturri izan ahalko dira aurreko puntuan aurreikusitako doikuntzetarako.
10. Sarreren 9. kapituluari dagokionez, luzatu egingo dira behin eta berriz errepikatzen diren inbertsioak finantzatzeko zorpetzetik eratorritako diru-sarrerak, bai eta luzatutako konpromiso-kredituei dagozkienak ere.
11. Baldin eta ekitaldi berrirako aurrekontu orokorrek ez badute jasotzen luzapen-erregimenaren bitartez baimendutako kredituetakoren bat, edo kopuru txikiagoarekin jasotzen badute, dena delako kopurua eragindako programa-taldearen kontura baliogabetuko da, eta, hori ezinezko bada, Udaltzak erabakiko du behar den doikuntza nola egin.

7. artikulua: Diru-sarrerak. Egitura ekonomikoa.

1. Diru-sarreren egoeran jasotako zenbatekoek balio zenbatetsia izango dute.
2. Sarreren egoeraren egitura ekonomikoan, eragiketa arrunten diru-sarreren, kapital-sarreren eta finantza-sarreren aurreikuspenak bereiziko dira.
 - 2.1.- Eragiketa arruntetako sarreretan hauek bereiziko dira:
 1. kapitulua: Zuzeneko zergak.
 2. kapitulua: Zeharkako zergak.
 3. kapitulua: Tasak eta bestelako diru-sarrerak.
 4. kapitulua: Transferentzia arruntak eta dirulaguntzak.
 5. kapitulua: Ondare-sarrerak.
 - 2.2.- Kapital-eragiketetako diru-sarreretan hauek bereiziko dira:
 6. kapitulua: Benetako inbertsioak besterentzea.
 7. kapitulua: Kapital-transferentziak eta -dirulaguntzak.
 - 2.3.- Finantza-eragiketetako diru-sarreretan hauek bereiziko dira:
 8. kapitulua: Finantza-aktiboen aldakuntza.
 9. kapitulua: Finantza-pasiboen aldakuntza.
3. Sarrera-aplikazio berriak sortzea —Aurrekontuko Sarreren Egoerari egoki egozteko— alkate lehendakariaren eskumenekoa izango da, eta ez da nahitaezkoa izango aldeztatik kontu-hartzaile nagusiak txostena egitea.
4. Ondarezkotzat jotzen diren ondasunak edo eskubideak besterentzetik edo zergapetzetik datozen diru-sarrerak ezingo dira baliatu gastu arruntak finantzatzeko, salbu eta bide publiko ez eraikigarriko edo udal zerbitzuetan erabili ezin diren zeretako soberako lurzatiak badira, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zeneko Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailean xedatutakoaren ildotik. Lurzoru-ondare publikoen nozioari, helburuari eta xedeari dagokienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen IV. tituluko I. kapituluan xedatutakoa beteko da.

8. artikulua: Ekonomia eta finantza plana.

- 1.- Aurrekontu-egonkortasun egoeran aurkezten da aurrekontu proiektu hau, Arabako lurralde historikoko toki-erakundearen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 38/2013 Foru Arauan xedatutakoaren ildotik. Aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburuak betetzen ez badira, plan ekonomiko-finantzario bat egingo da, zeinak



urte horretan eta hurrengoan helburuak edo gastu-araua betetzea ahalbidetu beharko baitu.

2.- Ekonomia- eta finantza-plana egiteko, 38/2013 Foru Arauan xedatutakoa beteko da.

II. KAPITULUA. AURREKONTU-KREDITUAK ETA HORIEN ALDAKETAK

9. artikulua: Gastuen egoeraren egitura.

1. Gastuen egoeran jasotako ordainketa-kredituek egitura organiko bat izango dute, egitura funtzional bat eta egitura ekonomiko bat.
2. Gastu-kredituak exekutatzeaz arduratuko diren udal sailei egiten die erreferentzia gastuen egitura organikoak. Nahitaezko izaera duten bi mailatan egituratzen da: udal saila batetik eta zerbitzua bestetik. Hirugarren maila, atalarena, aukerakoa da, udal sail batzuentzat. Honekin batera doa, eranskin batean, Gasteizko Udalaren egitura organikoa.
3. Ekitaldian zehar kodigo organikoak aldatu nahi izanez gero, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak aldeztu aurretik horretarako baimena eman beharko du, eta hurrengo ekitaldira arte ez dute ondorioz izango.
4. Gastuen egoerako egitura ekonomikoan, gastu arruntetarako kredituak, kapital-eragiketarako kredituak eta finantza-eragiketarako kredituak bereizten dira. Gastu arruntetarako kredituen barruan sartzen dira pertsonalarenak, ondasun arrunt eta zerbitzuenak, interesenak, transferentzia eta dirulaguntza arruntak eta, hala badagokio, kreditu globala. Kapital-eragiketarako kredituetan bereizita aurkezten dira inbertsio errealak eta kapital-transferentzia eta -dirulaguntzak. Finantza-eragiketarako kredituetan sartzen dira finantza-aktibo eta -pasiboen aldaketak.
5. Sailkapen ekonomikoak lau maila ditu: lehendabizikoa, kapituluari dagokio; bigarrena, artikuluari; hirugarrena, kontzeptuari, eta laugarrena, azpikontzeptuari.
6. Gastu publikoaren bitartez lortu nahi diren helburuei, gastua exekutatze dauten giza eta finantza-baliabideei, egin beharreko jardueri eta horien arduradunei buruzko informazioa jasotzen du gastuen egoeraren egitura funtzionalak. Lau mailatan sailkatuta ageri da egitura funtzionala: gastu-arloa, gastu-politika, programa-multzoa eta programa. Eranskinean dago jasota egitura funtzionala.

10. artikulua: Dirulaguntzei buruzko baldintza orokorrak. Hitzarmenen erregimen orokorra.

1. Oro har, dirulaguntzak emateko erregimen orokorra konkurrentzia-erregimena izango da.
2. Onetsitako aurrekontu orokorrean edo horren aldakuntzetan hala jasotakoak izango dira dirulaguntza izendunak. Dirulaguntzen Lege Orokorrari lotutako dirulaguntza izendun berriak gehitzeko, horiek onuraduna identifikatuz banakatzeko nahiz onetsitako aurrekontuan aurreikusitako zenbateko izendunak handitzeko aurrekontu-aldaketa egin beharko da, eta Udaltzako onetsi beharko du. Salbuespen gisa, gorako aldakuntzak onetsi ahal izango ditu alkateak, premia justifikatzen delarik eta hasiera batean onetsitako kredituaren % 20tik gorako gehikuntzarik egiten ez den bitartean, eta, edonola ere, 5.000 eurotik gorako gehikuntzarik ez dakartenak, baldin eta berritik sortzen ez badira.

Salbuespen gisa, alkateak onetsitako aurrekontu-aldaketa baten bitartez aldatu ahal izango da Larrialdietarako Arabako Funtzari laguntzak emateko dirulaguntza izendunaren zuzkidura.

3. Transferentzia arruntak eta kapital-transferentzien eranskinean jaso beharko dira, ezinbestean, aurrekontu-ekitaldian ematekoak diren dirulaguntza izendunak, aurrekontu orokorrari erantsen



zaion dokumentazioaren barruan.

4. Udalaren eta zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoen arteko lankidetzahitzarmenak formalizatu ahal izango dira, sektore publikoko kontratuen legediak arautzen dituen kontratuen barrukoa ez bada horien xedea.
5. Hitzarmenen bitartez gauzatuko dira dirulaguntza izendunak, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.
6. Aurrekontu-ekitaldi bat baino gehiago hartzen duten lankidetzahitzarmenak konpromiso-kredituen zerrendan sartu beharko dira, salbu eta errepikariak badira eta urtero dagozkion gastu-egoeretan jasotzen badira.

11. artikulua: Aurrekontu- eta kontabilitate-aplikazioa.

1. Aurrekontu- eta kontabilitate-aplikazioa, non zifretan adierazitakoa aurrekontu-kreditua izango baita, egitura organikoaren, funtzionalaren eta ekonomikoaren baturak definitzen du, zerbitzu edo atalaren mailan, azpikontzeptu ekonomikoaren eta programaren mailan emanda.
2. Horrela definitutako aurrekontu-aplikazioa oinarri hartuta egingo da gastu-kontabilitatea, eta kontuhartze kontrola, berriz, Aurrekontuak Exekutatzeko Udal Araudi honen 5. artikuluaaren arabera zehaztutako lotespen-mailaren gainean.
3. Sarreren kontabilizazioa aurrekontu-aplikazioaren mailan egingo da.
4. Aurrekontua gauzatu bitartean, gastuak behar bezala egozteko beharrezko diren aurrekontu-aplikazioak sortu ahal izango dira lotespen-mailen barruan, alkate lehendakariaren dekretua dela medio. Horretarako, aurrekontu-aldaketa egiteko dosierra beharko da.

12. artikulua: Ordainketa-kredituak.

Aurrekontuetan eta araudi honen ildotik egindako aldaketetan zein helbururekin baimendu ziren, horiek betetzeko baliatuko beharko dira aurrekontuko gastuen egoeran jasotako ordainketa-kredituak.

Izaera mugatzailea izango dute, ezingo baita kreditu jakin baterako hasiera batean onartutako zenbatekoa edo, halakorik izanez gero, araudi honetan jasotako xedapenen arabera aldatutako zenbatekoa gainditzen duen gasturik konprometitu edo ordaindu. Konpromiso-kreditu bat ere zuzkitua duten betebeharrei dagozkien ordainketa-kredituak direlarik, bi kredituen zuzkiduren batura adinako zenbatekoa konprometitu ahal izango da.

Udal sozietate publikoetan, transferentzia arrunten eta dirulaguntzen nahiz kapital-transferentzia eta -dirulaguntzen ordainketa-kredituek bakarrik izango dute izaera mugatzailea.

13. artikulua: Aldez aurreko tramitazioa.

Gauzatuko diren aurrekontu-ekitaldiaren aurrekoan hasi ahal izango dira araudiaren arabera kontratazioaren “**aldez aurreko tramitazioa**” egiteko aukera dagoen gastu-dosierrak, Udalari etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuen kontura izango diren betebeharrak ekonomikoak sortuko dizkionak, baldin eta zirkunstantzia hauetakoren bat egokitzen bada:

- Konpromiso-kreditu bat izatea, edo Udalbatzak hasierako onespena eman dion gastu-konpromiso bat.



- Komunzki aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa izatea.
- Hurrengo ekitaldirako aurrekontu-proiektuan gastu horretarako behar den kreditua jasota egotea, Udalbatzak hasierako onespena emanda.
- Aurrekontu-kreditua atxikitzea, gastuaren izaerarekin bat etorritik, luzapenik izanez gero mota horretako dossieren aurrekontu-zuzkidura bermatzeko beharrezko den zenbatekoan. Ogasun Sailak egindako txostenaren bidez eta kontu-hartzaileak ontzat emanda kontratu aurreratu horiek esleitzeko nahikoa zuzkidurarik badagoela ondorioztatzen den arte eutsiko zaio atxikipen horri.

Izapideak aldez aurretik egiteko dosierrak eskatzen dituen sailak justifikatu beharko ditu, eta honako hauek adierazi: beharra; horniduraren, zerbitzuaren, inbertsioaren eta, oro har, gastuaren hasieradata; aurreikusitako zenbatekoa edo aurreikusitako zenbatekoak, zenbait urtetako gastuak badira, eta, gastu errepikakorrek badira (batez ere kontratuetan), aurreko kontratuarekiko aurreikusitako zenbatekoen aldaketa, justifikatuta.

14. artikulua: Kreditu globala.

Toki-erakundearen administrazioaren aurrekontuko gastuen egoeraren barruan kreditu global bat sartu ahal izango da, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 23. artikuluan jasotako moduan, esan nahi baita beharrezko izanez gero hautazkoak ez diren eta hasiera batean onartutako aurrekontuan aurreikusi gabe zeuden beharrei —ekitaldian zehar sortzen direnei— erantzutera bideratutako aurrekontu-kredituen zuzkidura bereizi bat. Horrela eratutako kreditu globalaren zuzkidurak ez du gainditu beharko toki-erakundearen aurrekontuko ordainketa-kredituen zenbateko osoaren % 5a, kreditu globalaren beraren zuzkidura barne.

Zehaztugabeko eta ustekabekoetarako kreditu globaletik gastuak xedatzea kreditu-transferentzietarako ezarritako prozeduraren bitartez egingo da, eta alkate lehendakariari dagokio.

Prozedura honi lotuta egongo da kreditu globala:

- a) Ezingo da gasturik baimendu zuzenean kreditu global horren kontura.
- b) Kreditu globalaren erabilerak jatorrikoa izan beharko du beti, eta ezingo da hura inolaz ere handitu, salbu eta gerora Udalbatzak aldaketa onesten badu, hasierako ordainketa-kredituen % 5eko muga errespetatuz, nolana ere.

Hala eta guztiz ere, Udalbatzak, aurrekontua betearazteko arau honen bidez, erantsitako kredituen soberakin-saldoen ondorioz kreditu globalean izan daitekeen gehikuntza onets dezake, betiere hasierako aurrekontuaren % 5eko guztizko muga errespetatuz.

15. artikulua: Pertsonal-kredituak.

1.- Aurrekontuetako gastuen egoeretan jasotako pertsonal-gastuetarako ordainketa-kredituek izaera hau izango dute:

- a) Udal erakundearen administrazioan eta administrazio-izaerako erakunde autonomoetan, izaera mugatzailea izango dute bai kredituaren zenbatekoari dagokionez, bai aurrekontu-plantillari dagokionez, lege baimentzen diren aldaketak salbu direla.
- b) Sozietate publikoetan, gutxi gorabeherako aurreikuspenaren balioa izango dute.

2.- Pertsonal-plantilla aurrekontu-dokumentazioaren eranskinetan zehaztutakoa izango da.



- 3.- Edozein langile-kontratazio, ordezkapen edo programako kontratu berri egin aurretik, txostena egin beharko du Giza Baliabideen Sailak, dena delako kontratazioa egiteko aurrekontu-kreditu egokirik badagoen azaldu beharko baitu bertan.
- 4.- Gasteizko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratadun langileen 2025erako ordainsari osoak, aurrekontuak betearazteko arau honetan eta Estatuko oinarritzko legedian aurreikusitakoaren arabera igoko dira 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, erkaketaren bi aldietarako homogeneousotasunaren arabera, bai langile-kopuruari bai antzintasunari dagokienez, eta Estatuko oinarritzko legerian ezarritako mugak gainditu gabe.
- 5.- Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, ordainsarrietan egokitzapenak egin ahal izango dira, salbuespen gisa, baldin eta ezinbestekoak badira lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari atxikitako langile-kopuruaren aldaketagatik edo horretarako ezarritako helburuen betetze-mailagatik eta programa aplikatzearen banakako emaitzagatik. Entitate bakoitzeko organo eskudunak onetsiko ditu egokitzapen horiek.
- 6.- Ildo beretik, Gasteizko Udalak eta udal erakunde autonomoek funts bat ezarri ahal izango dute produktibitate-osagarri bat ordaintzeko, dela errendimendu-pizgarrien bidez, dela produktibitate-kontzeptuaren beraren bidez. Kontzeptu horiengatik ordainsariak, hala badagokio, organo eskudunek funts hori banatzeko ezartzen eta onesten dutenaren arabera aplikatuko dira, bai artikulu honen 4. apartatuan agertzen diren langileei, bai 7. eta 8. apartatuetan agertzen direnei, baldin eta bertan lan egiten badute. Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondorioz 2025eko ekitaldian ordaintzen diren zenbatekoei Estatuaren 2001eko Aurrekontu Orokorra onesteko abenduaren 28ko 13/2000 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako irizpideak aplikatu ahal izango zaizkie, hurrengo urterako behar diren eransketak egitearren, enplegatu publikoen aldizkako ordainsarien barruan finkatzeko ekitaldi horretarako.
- 7.- Kargu publikodunei dagozkien ordainsariak udal enplegatu publikoentzat ezartzen den ehuneko berean igoko dira 2025erako. Nolanahi ere, haien ordainsariak Estatuko oinarritzko legedian xedatutakora egokituko dira.
- 8.- Behin-behineko langileen lanpostuei dagozkien ordainsariak parekatuta dauden funtzionarioen lanpostuei dagozkien berak izango dira, edo, hala badagokio, oro har ezarritako lanpostuen sailkapen-prozeduraren bidez finkatuko dira.
- 9.- Nolanahi ere, Gasteizko Udalak eta udal erakunde autonomoek ordezkaritza handieneko sindikatuekin ordainsariak finkatzeko negoziazioen ondoren hartutako akordioek Ogasun Sailaren aldeko txostena izan beharko dute onetsi aurretik, eta jasotzen dituzten ordainsari osoen igoerak ez dira artikulu honetako 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoa baino handiagoak izango.

16. artikulua: Konpromiso-kredituak.

1. Ekitaldian eta hurrengo ekitaldietarako konprometitzen diren hainbat urteko gastuen multzoak osatzen du konpromiso-kredituen egoera —legez ezarritako baldintzetan dago baimenduta halakoak formalizatzea—.
2. Kreditu bakoitzaren zenbateko osoa eta exekutatze aurreikusten diren ekitaldiak adierazten ditu konpromiso-kredituen egoerak.
3. Aurrekontuaren eranskin gisa, etorkizuneko ekitaldietarako baimendutako konpromiso-kredituen zerrenda ematen da.
4. Etorkizuneko ekitaldietarako indarrean dauden konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezingo da izan likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arruntengatik baliabideen % 25etik gorakoa. Konpromiso-kredituek besteren finantzaketarik badute, zenbateko hori ez da gastu gisa kontuan hartuko, muga horri dagozkionetarako.



5. Aurrekontuetan ezin izango da jaso ekitaldian bertan edo hurrengoan exekutatzen hasiko ez den konpromiso-krediturik.
6. Ez dira sartuko konpromiso-kredituen egoeran langileei dagozkien gastuak, finantza-kargak, zorpetzearen ondorio diren amortizazioak eta ondasun higigarriak alokatzeari dagozkion konpromisoak, ezta izaera iraunkorreko gastuak eta segidakoak ere. Era berean, ez dira sartuko konpromiso-kredituen egoeran 12 hilabetetik beherako exekutatze-aldia izanik bi aurrekontu ekitaldi desberdini —exekutatzen ari den ekitaldi naturalari eta hurrengoari— egotzi beharreko betebeharrak sortzen dituzten zenbait urtetarako gastuak.
7. Konpromiso-kredituen kontabilizazio egokia egin beharko da, nola exekutatzen ari diren jarraipena egite aldera.
8. Exekutatze-erritmoaren aldakuntza dela kausa, konpromiso-kredituen urtez urteko zenbatekoak aldatu ahal izango ditu Tokiko Gobernu Batzarrak, bai eta konpromiso-kreditu bakoitzari lotutako ordainketa-kredituarena ere, bakoitzaren zenbateko osoari dagozkion urtekoen batuketan aldatzen ez duen bitartean. Gainerakoan, Udalbatzak izango du konpromiso-kredituak aldatzeko eskumena.

17. artikulua: Kudeaketa-kredituak.

1. Edozein erakunde publikok Gasteizko Udalera funtsak desbideratzen baditu, eskumena Udalarena ez den gaien inguruko proiektuak gauza daitezen, funtsak jasotzearen ondorio diren betebeharrei aurre egiteko beharrezko izango diren ordainketa-kredituak jasoko dituen kudeaketa-kredituari alta eman beharko zaio.
2. Kudeaketa-kredituei dagozkien ordainketa-kredituei alta emango zaie gastuen egoeran, zirkunstantzia hori adierazten delarik, eta kasuan kasu aplikatzekoa den araudiaren mende egongo da horiek exekutatzea.

18. artikulua: Gastu kofinantzatutak.

Kreditu jakin batzuk finantzatzeari atxikitako baliabideen bilakaera aurreikusitakoa baino txikiagoa baldin bada, behar diren doikuntzak adostu ahal izango ditu Tokiko Gobernu Batzarrak aurrekontuko gastuen egoeran, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak proposaturik, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 28.etik 36.era bitarteko artikuluetan araututako moduan.

Edonola ere, Udalbatzaren eskumenekoa izango da kredituaren deuseztatze-baja erabakitzea.

19. artikulua: Kreditu zabalgarriak.

Araudi honen eranskinean jasotzen diren ordainketa-kredituak dira kreditu zabalgarriak, zeinen kopurua —nahiz eta printzipioz izaera mugatzailea izan— handitu ahal izango baita arlo horretan indarrean dauden xedapenekin bat etorritik onesten eta zuzenean dena delako kredituari edo kredituei atxikitzen zaizkien eskubideen kariatz.

1. Tokiko Gobernu Batzarrak jo ahal izango du zabalgarritzat ordainketa-kreditu bat, Ogasun Sailak txostena egin ondoren, eta egiten den hurrengo bilkuran eman beharko zaio Udalbatzari horren berri.
2. Kreditu zabalgarritzat joko dira —dena delako eranskinean halakotzat ageri ez badira ere, eta berariazko finantzaketarik behar izan gabe ere— pertsonalaren nahitaezko gizarte-aurreikuspeneko erregimenari dagozkion betebeharrei aurre egiteko ordainketa-kredituak, kasuan kasu aplikagarri diren xedapenen arabera onartzen eta likidatzen diren betebeharretatik —haren



kontribuzio-erregimeneko aldaketen ondorioz— ateratzen den zenbatekoan.

3. Zabalgarritzat jotako ordainketa-kredituetan egiten diren kreditu-gehikuntzak Udalbatzako lehendakariak baimendu beharko ditu —aplikazio berean egiten direnak erabaki bakar batean metatu ahal izango dira—.

20. artikulua: Obligazioen eraginkortasuna.

1. Beren aurrekontuak exekutatzearen, epai irmoaren eta aurrekontuz kanpoko eragiketen ondorio direnean bakarrik izango dira eraginkor Gasteizko Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontura diren zenbatekoen ordainketa-betebeharrak.
2. Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 26. artikuluan eta horrekin bat datozen Toki Ogasunen Legeko xedapenetan ezarritakoari jarraituz, Gasteizko Udalak ez du onartuko auzitegiek, epaileek eta administrazio-agintariek igorritako betearazte-agindurik eta toki-ogasunaren eskubide, funts, balore eta, oro har, ondasunen kontrako bahikuntza-probidentziarik. Orobat, salbuetsita egongo da bermeak, gordailuak eta kauzioak eratzetik, horien izaera eta zenbatekoa edozein delarik ere.
3. Erabaki judizial irmoz Gasteizko Udalari edo haren erakunde autonomo bati betebeharrak ezartzen bazaizkio, udal administrazioak betebeharrak horiek betetzeko neurri egokiak hartuko ditu, legeetan epaiak geldiarazteko edo ez betetzeko aurreikusita dauden ahalmenak gorabehera. Nolanahi ere, ezarritako betebeharra ordaintzeko kreditu zabalgarria gaitu beharra baldin badago, hiru hilabeteko epean —erabaki judiziala jakinarazten den egunaren biharamunetik— aurrekontu-aldaketa egiteko dosierra izapidetuko da, zeina eskumena duen organoak onetsi beharko baitu, arau honen 21. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.
4. Ordenamendu juridiko pribatuan xedatutakoaren arabera izango dira eraginkor udal sozietate anonimoen kontura doazen ordainketa-betebeharrak.
5. Gasteizko Udalaren edo haren erakunde autonomoen kontura doazen ordainketa-betebeharrak beste alde batzuei ere betebeharrak sortzen dizkieten harreman juridikoen ondorio badira, lehenak ezingo dira inolaz ere gauzatu bigarrenak behar bezala bete edo bermatu ez badira. Salbuetsita egongo dira epai judizial irmoa dela medio onartzen diren betebeharrak.
6. Fakturak eremu judizialek kanpo onartzeko edo fakturak baliozkotzeko dosierraren bitartez, aurrekontuaren printzipioen urraketa konpondu dezake Tokiko Gobernu Batzarrak, eta, halaber, gastua legez ezarritako prozedura aintzat hartu gabe egin izana edo alde aurreko fiskalizazioa egin gabe izapidetu izana.

Horri dagokionez, bi kasu bereizten dira:

a) Erosketen, obren, zerbitzuen eta gainerako prestazio edo gastuen ondorio diren eta aurreko urteetatik datozen betebeharrak eremu judizialek kanpo onartzea xede duten gastu-dosierrak, non eta, komunzki nahikoa aurrekontu-zuzkidura izan ohi den gastuak izan arren, fakturak —Udalari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik— ezin izan diren epe barruan izapidetu.

Era berean, a) apartatu honetan deskribatutako prozedurari jarraituko zaio benetan egindako obra, hornidura edo zerbitzuengatik fakturak direnean, baldin eta bukatutako kontratuen jarraipenaren ondoriozkoak badira eta horietarako ezin bada Sektore Publikoko Kontratuen Legean deskribatutako nahitaezko luzapenaren legezko prozedurara jo, ez delako errespetatu kontratu berriaren lizitazio-iragarkia aurreko kontratua amaitu baino 3 hilabete lehenago argitaratzeko gutxieneko epea, baina betiere kontratua hasierako kontratua amaitu baino lehen iragarri bada.



Kasu horietan, hau izango da prozedura:

- Gastu horiek kudeatzen dituen sailaren txosten edo oroitidazkia, egindako jarduera justifikatzeko. Bertan, honako hauek egiaztatuko dira: benetan zerbitzua eman, hornikuntza egin edo inbertsioa gauzatu dela; prozedura motibatu duten arrazoiak; kontratistak fede onez benetan egindako prestazioen balioa merkatura doituta, eta, hala badagokio, egokitzat jotzen diren oharrak edo desadostasunak kontu-hartzailearen txostenarekiko.
- Kontu-hartzaile nagusiaren txostena, non agerian jartzen den gastu horiek ekitaldiko aurrekontuaren kontura estalita daudela, ekitaldiko aurrekontuan jasota dauden gainerako gastuen kalte izan gabe, edo, kasua bada, kredituak eremu judizialek kanpo onartzeko dosierraren ondorio diren gastuen aurrekontu-estaldura bermatzen duen aurrekontu-aldaketa.
- Gastuak kudeatzen dituen saileko zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzarrari igorriko dio gastu-dosierraren erabaki-proposamena, aitortu eta onets dezan.

b) Aldez aurretik fiskalizatu ez direlako, erosketen, obren, zerbitzuen eta gainerako prestazioen ondoriozko betebeharren fakturak baliozkotzea xede duten dosierrak, baldin eta gastuek ez badute jarraitu haiek izapidetzeko legez ezarritako prozedura, edo benetan egindako prestazioen fakturak badira baina kontratu-legediaren arabera izapidetutako kontraturik gabe eta nahitaezko luzapenerako aukerarik gabe, ezta aurreko a) letran deskribatutako prozedurarako ere.

Kasu horietan, hau izango da prozedura:

- Kontu-hartzailearen txostena, zeinak ez baitu izaera fiskalik izango, eta hark gastu-proposamenari buruz duen iritzia jasoko baitu, honako hauek adierazten dituelarik:
 - Ordenamendu juridikoaren urraketak.
 - Egintza horren ondorioz egin diren prestazioak.
 - Gastuaren zenbatekoa ordaintzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa dagoela dioen egiaztapena.
 - Ordenamendua urratuz egin diren egintzak berrikusteko aukera eta komenigarritasuna.
- Gastu horiek kudeatzen dituen sailaren txosten edo oroitidazkia, egindako jarduera justifikatzeko. Bertan, honako hauek egiaztatuko dira: benetan zerbitzua eman, hornikuntza egin edo inbertsioa gauzatu dela; prozedura motibatu duten arrazoiak; kontratistak fede onez benetan egindako prestazioen balioa merkatura doituta, eta, hala badagokio, egokitzat jotzen diren oharrak edo desadostasunak kontu-hartzailearen txostenarekiko.
- Gastuak kudeatzen dituen saileko zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzarrari igorriko dio gastu-dosierraren ebazpen-proposamena, baliozkotu eta onets dezan.
- Urtero, kontrol-txostenean, eragozpenekin batera, b) letran aipaturiko prozedura jarraitu duten dosierraren berri emango zaio Osoko Bilkurari.



Salbuespen gisa, kontu-hartzailearen irizpidearen arabera, izapide horretatik salbuetsi ahal izango dira faktura isolatuak, ez badira errepikakorrak, eta kontratazio txikiaren mugen barruan badaude; betiere, txosten tekniko batek justifikatzen badu ezinezkoa dela elektronikoki izapidetzea, eta, beraz, alde zuzeneko fiskalizaziorik gabe, justifikatutako urteko arrazoiengatik.

Nolanahi ere, 6. apartatu honetan jasotako prozedurak kontu-hartzaile nagusiak eta Tokiko Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoaren titularrak 2024ko martxoaren 1ean emandako jarraibidean xedatutakora egokituko dira, nahitaezko luzapenari, judizioz kanpoko aitorpenari eta fiskalizazio-omisioaren ondoriozko baliozkotzeari dagokienez.

21. artikulua: Aurrekontu-aldaketaren erregimena.

Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorrak osatzen dituzten gastuen eta sarreraren egoeretak bi motakoak izan ahalko dira:

- a) Onartu zirenean gastuen egoerek zuten zenbateko osoari eragiten ez dioten aldaketak, zeinak araudi honetako 21. artikuluan eta hurrengoetan araututako aldakuntzen eta kreditu-transferentzien erregimenari egokituko baitzaizkio.
- b) Eragindako kredituen zenbateko globalaren aldakuntzak, zeinak erregimen hauei lotuta egongo baitira:

1.- Kreditu-gaikuntza.

2.- Kreditu-txertaketa.

3.- Deuseztatze-bajak.

4.- Kreditu osagarriak.

5.- Kreditua zabaltzea.

6.- Deuseztatze-bajak.

22. artikulua: Kreditu-transferentziak.

1. Gastu-aurrekontuaren barruan —haren kopuru osoa aldatu gabe— aurrekontu-kreditu baten zenbateko osoa edo zati bat maila ezberdineko lotespen juridikoa duten aurrekontu-aplikazioetara aldatzen duten aldaketak dira kreditu-transferentziak.
2. Aurrekontu-aplikazio berriak sortzea ekarri ahal izango dute kreditu-transferentziek.
3. Programa-multzoa baten barruko transferentziak alkate lehendakariaren eskumenekoak izango dira, inbertsio errealerako aurreikusitako esleipenak gutxitzen dituzten transferentziak salbu, Udalbatzak onetsiko beharko baititu horiek. Transferentzia teknikoak alkate lehendakariak onetsiko ditu, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak proposaturik.
4. Programa-multzo ezberdinen arteko transferentziak alkate lehendakariak onetsiko ditu jatorrizko eta helburuko programa-multzoetan hasieran aurreikusitako esleipenak % 15 baino gehiago aldatzen ez badira —aldakuntza guztiak metatuta—, salbu eta inbertsio errealerako esleipenak gutxitzen baitituzte edo aurrekontuko VI. kapituluan lehenik aurreikusi gabeko aurrekontu-aplikazioak sortzea ekarriko badute.

Salbuetsita geratzen dira adierazitako ehunekoa gainditzen ez duten programa-multzo ezberdinen



arteko kreditu transferentziak, aurrekontuan aurreikusi gabeko aurrekontu-aplikazioak sortzea dakartenak, izaera finalistako finantziarioa badute alkate lehendakariak onetsi ahal izango baititu halakoak.

Gainerako kasuetan, Udalbatzak hartu beharko du erabakia.

5. Udalbatzaren eskumenekoa izango da Dirulaguntzen Lege Orokorrari lotutako dirulaguntza izendun berriak gehitzea, horiek onuraduna identifikatuz banakatzea nahiz onetsitako aurrekontuan aurreikusitako zenbateko izendunak handitzea, salbu eta gorako aldakuntza justifikatu eta beharrezkoen ondorio badira eta hasiera batean onetsitako kredituaren % 20tik gorako gehikuntzarik egiten ez den bitartean, eta, edonola ere, 5.000 eurotik gorako gehikuntzarik ez dakartenak —gehikuntza % 20tik gorakoa izanda ere—, baldin eta berriak sortzen ez badira.
6. Kreditu-transferentziek mugapen hauek dituzte:
 - a) Ezingo dituzte handitu beste transferentzia batzuen ondorioz gutxitutako kredituak.
 - b) Handigarritzat jotako kredituak txikiagotu ahal izango dituzte. Kreditu horiek izendapen hori galduko dute, eta geroztik ezin izango dira handitu.
 - c) Ezingo dituzte gutxitu transferentzia-erregimenaren arabera edo kreditu osagarrien bitartez gehitutako ordainketa-kredituak.
 - d) Ezingo dute kreditua gutxitzea ekarri araudi honen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera gehitu diren konpromiso-kredituetan.
7. Aurreko mugapen horiek ez diete eragingo hauei:
 - a) Pertsonal-kredituei dagozkien kreditu-transferentziei.
 - b) Udalbatzak onetsitako administrazio-berrantolaketak direla eta erabakitako transferentzien ondorio direnei.
 - c) Kontabilitate-egozpen egokia lortzeko beharrezko diren egokitze teknikoaren ondorio direnei — akats materialen, kontzeptu-akatsen, egiteko akatsen edo akats aritmetikoaren kasuan—, eta Kontu Planaren arabera oker eginda dauden gastu eta diru-sarreraren egozpenei.
 - d) Kreditu globaletik eratorritako transferentziei, bai jatorrian, bai helmugan.
 - e) Finantzaketa atxikia duten gastu-proiektu kodifikatuei eragiten dieten kasuetan (Next funtsak, Zaramaga, eta abar), horren beharra justifikatzeko txosten teknikoa egin beharko da aurretik, hau da, hori egingo ez balitz proiektu horiei lotutako kanpo-finantzaketa murriztuko litzatekeela dioen txosten teknikoa.
 - f) Sail ezberdinetako aurrekontu-aplikazioen arteko kreditu-transferentziei, aurrekontuan jasotako zerbitzu, kontratu edo bestelako prestazio bat transferitzen delako justifikatuta badaude, eta, zirkunstantzia jakin batzuk direla-eta, beste sail batean exekutatzeko erabaki bada.
 - g) Ezarritako mugapenak behar bezala aplikatu ez direla justifikatzen den gainerakoei, kontu-hartzaile nagusiak hala irizten diolarik.
- 8.
9. Kreditu-transferentzien erregimena aurrekontu arruntari aplikatuko zaio, baita aurreko ekitaldietatik txertatutako soberakinei ere, baldin eta eskabidea egiten duen sailak txertatutako kredituaren saldoaren premiarik ez dagoela justifikatzen badu —gerakinen kasuan—, honako zirkunstantzia hauen ondorioz: dosierrak esleitu gabekotzat deklaratzeko; bajak exekutatzeko; erantsitako geldikina exekutatzeko ezintasuna, edo finantzaketa atxikia duten gastu-proiektu kodifikatuen kasuetan (Next funtsak, Zaramaga, eta abar). Nolanahi ere, Ogasun Sailak balioetsi eta justifikatuko du aurrekontu-aldaketako dosierren beharra, baldin eta horien jatorria kreditu-



gerakinen kreditu-saldoak badira, eta salbuespenezko izaera izango du.

10. Ogasun Sailak izapidetuko ditu kreditu-transferentzien dosierrei; horrelakoetan, nahitaezkoa izango da kontu-hartzaile nagusiak emandako legezketasun-txostena jasotzea. Sail interesdunaren eskariz abiarazi ahal izango dira dossier horiek, Ogasun Sailari txostena bidaltzen diolarik, eta bertan transferentziaren xedea azaldu eta jatorri- eta helburu-aplikazioak zehazten. Proposamena egin duen sailak justifikatu beharko du jatorrizko partidak edo partidek transferitu dezaketela proposatzen den kreditua, eta horrek ez dituela arriskuan jartzen edo kaltetzen transferitzen den kredituarekin lortu nahi ziren helburuak edo xedeak. Azken batean, kreditua sobera dagoela, eta kreditua jasotzen du(t)en kontu-sailak/ek ez duela/dutela saldo nahikorik, ez eta loturagatik ere, eta, horregatik, transferentzia egin behar dela. Dosierraren ebazpen-proposamena alkateak izenpetuko du beti, ahalmen hori eskuordetzeko aukera gorabehera. Aurrekontu-kredituak aldatzeko dosierra abiarazten duten udal sailek —horiek onesteko organo eskuduna Udalbatza bada— haien edukiaren berri eman beharko dute dagokien irizpen-batzordean.
11. Baldin kreditu-transferentziek konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa-kredituak gutxitzea badakarte, kontratuen zenbatekoa araudi honetako 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera gehitzea baimendu ahal izango da, gutxitutako zenbatekoa kenduta. Hala ere, aurreko paragrafoan adierazitako transferentziek ordainketa-kredituak zuzkiduratzat zeukan zenbateko osoari eragiten badiote, hura osagai zuen konpromiso-kreditua deuseztaturik geratuko da automatikoki.

Konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa-kredituen zuzkidura gehitzea dakarten transferentziek ondorio hauetako bat eragingo dute:

- konpromiso-kreditua transferitutako zenbatekoan gutxitzea, edo
- konpromiso-kreditua aurreko zenbateko berean mantentzea.

Lehenbiziko kasuan, araudi honetako 16. artikuluan aurreikusitako gehikuntza baimendu ahal izango da, gehikuntza hori konpromiso-kredituaren zuzkiduraren gainean aplikatuta, eta bigarreanean, berriz, egindako gehikuntza kontuan hartuko da agindu horretan adierazten diren baimenaren mugak erabakitzeko.

23. artikulua: Kreditu-gaikuntza.

1. Ekitaldiaren barruan, udal erakundearen edo haren erakunde autonomoen sarreraren egoeran aurreikusita ez zegoen sarrerarik lortzen bada, edo aurrekontu horietan aurreikusitakoak baino sarrera handiagoak eskuratzen badira, aurrekontu-kredituak sortu ahal izango dituzte dagokien gastuen egoeran.
2. Honako hauek jotzen dira kreditu berriak gaitzeko edo dagoeneko daudenak handitzeko moduko sarreratzat:
 - a) Pertsona natural edo juridikoek egindako ekarpenak, edo ekarpena egiteko konpromiso irmoak, Gasteizko Udalarekin edo haren erakunde autonomoekin batera haien izaera dela eta beren helburu edo xedeetan sartzen diren gastuak finantzatzeko.
 - b) Ondare-ondasunak besterentzea.
 - c) Zerbitzuak ematea.
 - d) Maileguak itzultzea.



- e) Beste erakunde publiko batzuen aurrekontuen kontura jasotako ekarpenak edo pertsona nahiz erakunde pribatuetatik datozenak.
- f) Itxitako ekitaldiei dagozkien bidegabeko ordainketak itzultzea.
3. Aurreko b) letran deskribatutako eragiketen bitartez gaitzen diren kredituak kapital-eragiketarako finantzatzeko baliatu beharko dira.
- Aurreko a) eta e) letretan deskribatutako eragiketen bitartez gaitzen direnak horretarako hitzartutako proiektu zehatzak exekutzeko baliatu beharko dira.
- 4.- Kreditua gaitzeko, ezinbesteko baldintza izango da:
- Aurreko 2. puntuko a), b) eta e) ataletan adierazitako kasuetan, eskubidea aitortzea edo ekarpenak egiteko konpromiso irmoa formalki izatea.
 - Aurreko 2. puntuko c) eta d) ataletan adierazitako kasuetan, eskubidea aitortzea, nahiz eta kreditu horien erabilgarritasuna eskubideak benetan biltzearen baldintzapean egongo den.
 - Indarrean den aurrekontuko itzulketen kasuan, itzulketaren kobrantzaren egiazkotasuna.
- 5.- Honako hauek izango dira 2. apartatuko a) letran aurreikusitako kreditu-gaikuntzak izapidetzeko ezinbesteko betekizunak:
- Ekarpena edo ekarpena egiteko konpromiso irmoa justifikatzen duen dokumentazioa eranstea (erabakia, ebazpena, hitzarmena, dekretua eta abar).
 - Dirulaguntza edo ekarpena justifikatzeko beharrezkoak diren gastuak gastuen aurrekontuan sartuta ez daudela justifikatzea, eta, beraz, ezinbestekoa dela gaikuntza ematea ekarpen horren ondoriozko konpromisoak bete ahal izateko.
- 7.- Izaera finalista duten kredituak gaitzeko, Udaleko lehendakariaren onespena beharko da, eta Udalbatzak izango du eskumena gainerako gaitzeak onesteko. Beti ere, horretarako, Ogasun Sailak aurrekontua aldatzeko dossier egokia izapidetuko du, eta Kontu Hartzailtza Nagusiak horri buruzko txostena egin beharko du. Kredituak gaitzeko dossier guztien berri eman beharko zaio Udalbatzari, egiten duen hurrengo bileran.

24. artikulua: Kreditu-txertaketa.

1. Gasteizko Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurreko ekitaldiko aurrekontuetako gastuen egoeran sartuta zeuden ordainketa-kredituak, dagoeneko onartutako betebeharrak betetzeari lotuta ez bazeuden, indarrean dagoen aurrekontuan txertatu ahal izango dira, baldin eta hurrengo kasu hauetakoren bati egokitzen bazaizkio:
 - a) Baimenarekin transferitutako kredituak eta emandako kreditu osagarriak, ekitaldiko azken hiruhilekoak.
 - b) Erabaki nahiz baimendutako gastuei dagozkien kredituak, arrazoi justifikatuengatik betebeharra hartzerik izan ez bada.
 - c) Gaitutako kredituak eta eragindako sarrerei lotutako bestelako kredituak.
 - d) Kapital-eragiketen ondorio diren kredituak, eta udalaren lur ondareari dagozkionak.
2. Kreditu-soberakinak txertatzea horretarako nahikoa finantza-baliabide egotearen menpe egongo da, eta jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berarekin txertatuko dira.
3. Txertatutako kredituak txertatzen direneko ekitaldiaren barruan gauzatu beharko dira, eta ezingo dira hurrenez hurren txertatu, sarrera finalistekin finantzatzen diren kapital-eragiketen kasuan izan ezik.
4. Hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako gastuen egoeran sartuta egonik txertatzen diren kredituak



zeudenen jarraipen diren programa-multzoetan sartuz egingo da kreditu-txertaketa. Behar izanez gero, alta emango zaio programa-multzoari indarrean dagoen aurrekontuaren egituran.

5. Ekitaldi jakin baterako onetsi arren hartan konprometitu ez diren konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa-kredituak baldin badira, haiek txertatzeak berekin ekarriko du horiek automatikoki txertatzea.
6. Alkate lehendakariak du kreditu-txertaketak gauzatzeko eskumena. Horretarako, dosierra izapidetu beharko du, eta kontu-hartzaile nagusiak txostena egin beharko.
7. Txertatzeko modukoak izanik ekainaren 30erako dagozkien aurrekontuei txertatzen ez zaizkien kredituak baliogabetuta geratuko dira.

25. artikulua: Kreditu osagarriak.

1. Ordainketa-krediturik izendatuta ez daukan gasturen bat egin beharra baldin badago, edo ordainketa-kreditua izanda ere nahikoa ez bada eta zabalgarria ez bada, eta ezin bazaio estaldura eman araudi honetan araututako aldaketa-erregimenari jarraituz, kreditu osagarria emateko dosierra abiarazi beharko da.
2. Kreditu osagarriaren dosierra dokumentazioa honekin izapidetuko da:
 - a) Gastuaren behar edo premiaren justifikazioa, lehendakariak sinatuta.
 - b) Proposatutako gastua finantzatzeko duen baliabidearen eta Ogasun Sailak handitu beharko duen aurrekontu-aplikazio xehatuaren zehaztapena.
 - c) Kontu-hartzaile nagusiaren txostena.

Kreditu osagarriaren finantziazio posibletzat joko dira diruzaintzako geldikina, ohiko aurrekontuan aurreikusitako zenbateko osoaren gaineratik likidatutako sarrera berri eta handiagoak — normaltasunez egiten direla frogatzen bada Ogasun Sailaren txostenaren bidez eta izaera finalista eduki behar ez badute edo ez badute—, eta ordainketa-kredituen deuseztatze-bajak.

3. Salbuespen gisa, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.3 artikuluan ezarritako quorumarekin hartutako erabakia dela medio, berariaz beharrezko eta premiazkotzat jotzen diren eragiketa arrunten ondoriozko gastu berri edo handiagoak finantzatzeko erabil daitezkeen baliabidetzat joko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten kreditu-eragiketetatik datozenak:
 - a) Beren urteko guztizkoa Gasteizko Udalaren aurrekontuan eragiketa arruntak direla eta jasotako diru-sarreraren % 5etik gorakoa ez izatea.
 - b) Udalaren finantza-karga osoa, egin asmo diren eragiketetatik eratorritakoa barne dela, baliabide horien % 25 baino gehiago ez izatea.
 - c) Eragiketak hitzartzen dituen Udalbatza berri aurretik horiek kitatuta geratzea.
4. Udalbatzak du eskumena kreditu osagarrien edo apartekoen eta kreditu-gehikuntzen dosierrak onesteko. Kreditu horien gehikuntza metatua hasierako kredituen %5 baino gehiago ez bada, Udalbatzako lehendakariak izango du horiek onesteko eskumena.

Nolanahi ere, Ogasun Sailak landutako kreditu osagarriaren dosierraren inguruko txostena egin beharko du kontu-hartzaile nagusiak, eta aurrekontu orokorretan informazioari, erreklamazioei, publikotasunari eta errekurtsioei dagokienez ezarritako arauak aplikagarri izango zaizkio hari,



Udalbatzako alkate lehendakariak onetsitako dosierrak salbu, horietan ez baita arauzkoa izango erreklamazioen, publikotasunaren eta errekurtsoen erregimen hori.

5. Hondamendi publikoen kasuan nahiz aparteko interes orokorra jokoan dagoen antzeko kasuetan kreditu osagarriak ematea helburu duten erabakiak berehala betetzekoak izango dira, kreditu horien kontra aurkezten diren erreklamazioak gorabehera; erreklamazioak aurkeztu ondoko zortzi egunetan ebatzi beharko dira, eta ezetsizat joko epe horretan errekurtsogileari ebazpena jakinarazi ezean.
6. Erakunde autonomo baten aurrekontuan Krediturik ez izatea edo behar adinakorik ez izatea gertatuz gero, Udalari bidali beharko zaio erakunde autonomoko organo eskudunak proposatutako kreditu osagarri edo apartekoaren edo kreditu-gehikuntzaren dosierra, artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera izapidetu dadin.

26. artikulua: Kreditu zabalgarriak.

Arau honetan zerrendatzen diren aplikazio zabalgarrietakoren batean aurrekontu-kreditua handitzean gauzatzen den gastu-aurrekontuaren gorako aldakuntza oro joko da zabalpentzat.

Diru-sarrereren aurrekontuan eskubideak benetan aitortu direla justifikatu ondoren tramitatuko da dosierra, horiek zabalgarritzat jotako gastu-partidak kreditu handiagoz hornitzeko aukera izan dadin.

Aldakuntzaren inguruko txostena egin beharko du Ogasun Sailak, eta alkatearen dekretuz onetsiko da hura —ez da arauzkoa izango udal kontu-hartzailearen txostena—.

27. artikulua: Deuseztatze-bajak.

1. Aurrekontu-aplikazio bati esleitutako kreditua guztiz edo zati batean gutxitzea dakarren gastu-aurrekontuko aldaketa da deuseztatze-baja. Gastu-aurrekontuko edozein kreditutan gerta liteke baja hori, erabilgarri dagoen kredituaren saldoari dagokion zenbatekoan, zuzkidura hori dena delako zerbitzuari enbarazu egin gabe murriztu edo deusezta daitekeela uste bada.
2. Honako hauek eragin dezakete kredituei baja ematea:
 - a) Diruzaintzako soberakin negatiboak finantzatzea.
 - b) Kreditu osagarriak finantzatzea.
 - c) Udalbatzaren beste erabaki batzuk betetzea.
3. Udalbatzak erabaki beharko du aurrekontuan aurreikusitako ordainketa-kredituen deuseztatze-baja.

28. artikulua: Udal sozietateen gastu-mailari eutsiz egindako aldaketak.

Gasteizko Udalaren aurrekontuaren kontura transferentziak jasotzen dituzten udal sozietate publikoetako aurrekontuen guztizko gastu-maila aldatzen ez duten aldakuntzak, mugatzailetzat jotako kredituei eragiten ez dietenean, Udalbatzako lehendakariak baimendu beharko ditu, baldin eta ekitaldiko aldakuntza metatua sozietate horren aurrekontuaren % 5etik gorakoa ez bada. Bestela, Udalbatzak izango du eskumena. Edonola ere, onetsitako aurrekontua aldatzeko dagokion dosierra tramitatu beharko da.

Gasteizko Udalaren Aurrekontu Orokorretan jasota dauden eta udal sozietate publikoetara zuzenduta dauden transferentzia arruntei dagozkien ordainketa-kredituek dirulaguntzaren izaera daukate transferentzien hartzaileentzat, beren emaitza-kontua orekatzeko behar den neurriraino. Funtsak neurritz gain eman badira, zenbateko hori soberakintzat joko da, inolako deklaraziorik egin beharrik gabe, eta itzuli egin beharko zaio udal ogasunari.



Udalbatzak, ekitaldirako ezarritako helburuen betetze-maila ikusirik, soberakintzat jo ahal izango ditu hasiera batean udal sozietate publikoetara transferitzekoak ziren funtsak, komenigarri irizten dion zenbatekoan.

Zer finantzatzera zuzenduta zeuden, helburu horiek exekutatzean izandako ez betetze edo atzerapenen ondorioz Udalaren sozietate publikoetan egokitzen diren funts-soberakinak kontuan hartuko dira haien hurrengo ekitaldiko aurrekontuen finantziazioa zehazteko orduan.

III. KAPITULUA. AURREKONTUAK EXEKUTATZEA

29. artikulua: Diru-sarrera exekutatzea eta bilketa-aldia.

1. Aurrekontu-ekitaldian aitortutako eskubideak ekitaldi horri egotziko zaizkio, eskubideak edozein alditan sortu zirela edo edozein kobrantza-data dutela ere.
2. Diru-sarreraren aurrekontuaren kudeaketa fase hauetan egingo da:
 - a) Sarrera aitortzea. Sarrera bakoitzaren araudi bereziarekin bat etorritik, Gasteizko Udalaren alde eskubide bat sortzen du egintza horrek.
 - b) Sarrera kobratzea. Eragiketa horrek, sarrera hori diruzaintzan sartzean, alde aurretik edo aldi berean aitortutako eskubide bat eraginkor bihurtzen du.
3. Udalak erabakiko du aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak ordaintzeko borondatezko epea, bai zergei eta bai prezio publikoei dagokienez, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorrean xedatutakoari jarraituz.
4. Diru-sarreraren aurrekontuko kontabilitate agiriei Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren izenpea izan beharko dute. Kontabilitate-laburpenekin ordeztu ahal izango dira agiri horiek.
5. Behar ez bezala egindako likidazioak baliogabetzearen ondorio diren diru-sarreraren itzulketak indarrean den ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuan aplikatuko dira beti, dena delako aurrekontu-kontzeptuari dagokion diru-bilketa murriztuz, itzulketa eragin duen sarrera zein aurrekonturi aplikatu zitaion gorabehera.
6. Diru-sarrera bikoiztu edo gehiegizkoen itzulketak aurrekontuz kanpoko eragiketatzat joko dira.
7. Gasteizko Udalak beste entitate batzuen diru-bilketaren kudeaketa esleitua edo bere gain hartua duen eta benetan egiten duen kasuetan, ehuneko 5 edo egoki den kopurua bereganatuko du, diru-bilketako gastuen konpentsazio gisa.

30. artikulua: Gastua exekutatzea.

Aurrekontua exekutatzean, gastuen egoerari dagokionez, printzipio hauei jarraitu beharko zaie:

- **Ondoz ondoko administrazio-kontrola.** Prozedurako edozein egintza egin aurretik, alde aurreko eragiketak behar bezala bete direla egiaztatuko da.
- Prozedurako eragiketa guztiak **agiri bidez justifikatzea**, justifikatu beharreko igorpenak barne.
- Arduradunek **eragiketak exekutatzeari buruzko datuak idatziz jasotzea.**



Gastua exekutatzeke faseak hauek izango dira:

- a) Gastua baimentzea.
 - b) Gastua xedatzea.
 - c) Betebeharra onartzea.
 - d) Ordainketa agintzea.
 - e) Ordaintzea.
1. Gastua **baimentzea**: zenbateko zehatz edo gutxi gorabeherako batez, eta erabat edo zati batean horretara bideratzen den kreditu jakin baten kontura, gastua egitea erabakitzen deneko egintza.
 2. Gastua **xedatzea**: egoki diren legezko izapideak egin ondoren, eta zehazki erabakitako zenbateko eta baldintzekin dagokion kreditua esleituta, obrak exekutatzea eta ondasun eta zerbitzuak utzi edo ematea formalizatzen deneko egintza.
 3. **Betebeharra onartzea**: xedatzearen objektu izan den prestazioa egokiro eman dela edo horren inguruan hitzartu edo erabakitako baldintzak bete direla behar bezala egiaztatzen delarik galda daitezkeen kredituak kontuetan erregistratzea.
 4. **Ordainketa agintzea**: onartutako betebeharrak bat dela eta arduradunak udal erakundearen diruzaintzaren kontura ordainketa-agindua ematea.

Administrazio-egintza bakarrak gastuen aurrekontua exekutatzeke fase bat baino gehiago barne hartu ahal izango du, administrazio-egintza berezietan erabakiko balira sortuko liratekeen eragin berberekin.

31. artikulua: Eskumenak.

1. Gasteizko Udalaren aurrekontu orokor hauetan onartutako kredituen nahiz horien aldaketen barruan, alkate lehendakariak nahiz Tokiko Gobernu Batzarrak izendatutako zinegotzi ordezkariak dagokie gastuak baimentzea. Gastuak xedatzea honako hauei dagokie: udal erakunde lehendakariari, zinegotzi ordezkariari —eskumenak eskuordetzeke dekretuaren ildotik— edo Tokiko Gobernu Batzarrari, legez berari aitortutako eskumenak baliaturik.
2. Udalbatzako lehendakariari dagokio legez hartutako gastu-konpromisoetatik eratorritako betebeharrak onartzea, egindako eskuordetzeak gorabehera.
3. Administrazio-izaerako erakunde autonomoetan, aurreko paragrafoetan adierazitako ahalmenak azaldutako baldintzetan gauzatuko dira. Erakunde horien estatutuetan horretarako izendatzen diren erakunde organoen esku izango da aipatutako eskumenez baliatzea.
4. Udal erakundearen aurrekontuaren esparruan, alkateari dagozkio ordainketak agintzearekin lotutako egitekoak, baina horiek eskuordetzea izango du.
5. Administrazio-izaerako erakunde autonomoetan, estatutuan horretarako izendatzen den erakunde organoak aginduko ditu ordainketak.
6. Ordainketa-aginduak alkateak —ematen dituen eskuordetzeak gorabehera— funtsak baliatzeke ezartzen duen planari egokitu beharko zaizkio. Nolanahi ere, zor publikoaren ordainketaren erabateko lehentasuna jaso beharko du plan horrek, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren ildotik. Bigarrenik,



pertsonal-gastuek eta aurreko ekitaldietan onartutako betebeharrak izango dute lehentasuna.

7. Ogasun Saila arduratuko da aurrekontua kudeatzeko zereginenez, bai gastuen egoerari dagokionez, bai diru-sarreraren egoerari dagokionez, eta sailkapen ekonomiko nahiz funtzionalaren kapitulu guztietan. Orobat, aurrekontuen exekutatzearen etengabeko segimendua egingo du zerbitzu horrek, eta beharrezkotzat jotzen dituen neurriak proposatuko ditu, aurrekontu-exekutatze hori arrazionalizatzeari dagokionez.

32. artikulua: Kreditu ez-erabilgarria eta kreditu-atxikipena.

1. Udalbatzak, alkateak proposatuta, aurrekontu-kredituak erabilgarri ez direla erabaki ahal izango du, baita berriz erabilgarri bihurtzea ere.
2. Kreditu bat erabilgarri ez izateak esan nahi du kreditu horren kontura ezin izango dela gasturik baimendu, transferentziarik egin edo krediturik txertatu hurrengo ekitaldian.
3. Larrialdi-egoeretan, baita aurrekontu-egonkortasunaren araua ez betetzeko arriskua dagoen egoeretan ere, kreditu-atxikipenak agindu ahal izango ditu alkateak, dekretu bidez, Ogasun zinegotziak hala proposatzen diolarik.

Kreditu horiek erabilgarri-egoerara bihurtzeko prozedura hau baliatu beharko da:

- Kontu Hartzailletza Nagusiaren txostena, kreditua berriro erabilgarri bihurtzearen aldekoa.
 - Alkatearen dekretua.
4. Kontratazio- edo dirulaguntza-prozedurari ekin aurretik —aldeztatik txosten bidez justifikatzen delarik—, gastu-kredituak exekutatzearen ardura beren gain duten udal sailletako zuzendariak kreditua atxikitzeak RCA kontabilitate-agiri izapidetu beharko dute, delako atxikipena aurrekontuko zein gastu-kreditutatik egin behar den azaltzen dutelarik.

33. artikulua: Gastua baimentzea.

1. Zenbateko zehatz edo gutxi gorabeherako batez, eta aurrekontu-kreditu bat osorik edo zati batean horretarako gordeta, gastu bat egitea erabakitzeak erabiltzen den egintza da baimena.
2. Organoek dituzten eskumenen arabera baimenduko dituzte gastuak.
3. Gastuak baimentzeko ezinbestekoa izango da dossier bat eratzea, eta bertan A kontabilitate-agiria sartzea.

34. artikulua: Gastua xedatzea.

1. Zehazki ezarritako zenbateko batez, aurretik baimendutako gastuak egitea erabakitzeak egintza da xedapena.
2. Eskumena duen organoak xedapena onesten duelarik, D kontabilitate-agiria izapidetu beharko da.
3. Gastu-dosierraren hasieran gastuaren zenbateko zehatza eta hartzailearen izena ezagunak badira, baimentzeko eta xedatzeko faseak batu egingo dira, eta AD kontabilitate-agiria izapidetuko.

35. artikulua: Betebeharra onartzea.

1. Gastu baimendu eta konprometitu baten ondorioz Gasteizko Udalari eska dakioken kreditu bat



badela adierazten duen egintza da betebeharra onartzea.

2. Betebeharrak onartzeko faseak O kontabilitate-agiria izapidetzea eskatzen du, nahiz eta hornidurak erosteko edo zerbitzuak emateko fakturak aurkeztuz gero, faktura horiek ADO agiritzat kontabilizatu ahalko diren.
3. Gastuaren izaeragatik betebeharra baimendu, xedatu eta aitortzeko faseak aldi berekoak baldin badira, batu egin ahal izango dira, eta ADO kontabilitate-agiria izapidetu.
4. Kontratistek jaulkitzen dituzten fakturak Udalaren Erregistro Nagusiko fakturen erregistroan aurkeztu beharko dira, edo Faktura Elektronikoa bultzatzeko 25/2013 Legean araututakoaren ildotik horretarako gaitzen den erregistro elektronikoa, eta datu hauek jaso beharko dituzte, gutxienez:
 - Udalaren edo erakunde autonomoaren identifikazio argia (izena, IFZ).
 - Kontratastaren identifikazioa (izena, IFZ).
 - Faktura-zenbakia.
 - Hornidura edo zerbitzuaren deskribapen nahikoa.
 - Enkargua egin zuen zentro kudeatzailea.
 - Gastu-dosieraren zenbakia, esleipenaren unean jakinarazi bazen.
 - Gastu horri dagokionez aurrez fakturatutako zenbatekoa.
 - Kontratastaren izenpea.

Nortasun-agiria edo IFZ eskatzeari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak argitaratzen duen berriazko araudia aintzat hartu beharko da.

5. Fakturak faktura-erregistroan jasotakoan, erregistratu egingo dira, eta sail kudeatzaileei igorriko, dagokion zuzendari edo zerbitzuburuak ontzat eman ditzan modu digitalean, eta egintza horrek esan nahiko du obra, zerbitzua edo hornidura zehaztutako baldintzen arabera egin dela.
Fakturak ontzat ematerakoan eta horien ondoriozko betebeharrak aitortzerakoan, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dira.
6. Fakturak ontzat eman eta horien euskarri diren kontabilitate-agiriak izapidetu ondoren, Kontu Hartzailetzara eta Kontabilitate Zerbitzura igorriko dira, beste izapiderik gabe, kontu-hartze eta kontabilitate ondorioetarako.
7. Aldian aldiko gastu arrunten kasuan —argindarra, ura, gasa eta abar hornitzea, posta-zerbitzuak, hondakinen bilketa eta tratamendua, kale-garbiketa...—, abendura arte onartutako betebeharrak egotziko zaizkio aurrekontuari, sortzapen-printzipioa aintzat harturik beti ere, baita Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bitartez kontabilitatea ixteko arautzen diren datak ere. Nolanahi ere, ekitaldiaren barruan behar bezala egin arren administrazio-izapideak direla eta ekitaldiaren barruan onartzerik izan ez den gastuak, zerbitzua eman edo ondasunak erosi ziren ekitaldiaren hurrengoari egotziko zaizkio, 20.6 artikuluan araututakoaren ildotik.

a.

b.



36. artikulua: Euskarri-dokumentazioa.

1. Gastua exekutatzearen euskarri diren kontabilitate-agiriekin izenpe hauek eduki beharko dituzte:
 - a. A, AD eta D agiriak: gastu-dosierra hasi duen arloko zinegotzi ordezkariaren izenpea.
 - b. ADO, O, DO, ADOJ eta J agiriak: gastua kudeatzeko dosierra hasi zuen arloko zinegotzi ordezkariaren izenpea, baimendutako izenpearen laukitxoan, eta Ogasuneko zinegotziarena, organo eskudunaren laukitxoan. Ogasuneko zinegotziaren izenpe horren lekuan kontabilitate-agiriak jasotzen dituzten zerrendak baliatu ahal izango dira.

2. Gasteizko Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuen kontura jaulkitzen diren ordainketa-aginduei zordunak egindako prestazioarekin bat datorrela edo zenbatekoa jasotzeko eskubidea duela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi beharko zaio, betiere gastua baimendu eta konprometitzeko baliatu ziren kontratu, erabaki eta xedapenekin bat etorritz.

3. Gasteizko Udaleko edo haren erakunde autonomoetako aurrekontuen kontura emandako dirulaguntzen hartzaileek, dirulaguntza jaso aurretik, erakundearekiko zerga eginbeharrei dagokienez egunean daudela frogatu beharko dute, eta, ondoren, jasotako funtsen erabilera justifikatu. Horretarako, funtsak emateko arrazoia izan ziren helburuetarako benetan erabiltzen direla kontrolatzeko arau egokiak landuko ditu Kontu Hartzailletza Nagusiak.

37. artikulua: Betebeharrak onartzeko agiri nahikoak.

Udalak betebeharrak onartzeko (O fasea) ezinbestekoak izango dira, kasu guztietan, onartzekoa den gastuaren izapideak hasi zituen organo eskudunaren izenpea ez ezik, alkatearen edo Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren izenpea, Kontu-hartzailletza Nagusiak agiri edo dosierraren kontu-hartzea egin ondoren.

Ogasuneko zinegotziaren izenpe horren lekuan kontabilitate-agiriak jasotzen dituzten zerrendak baliatu ahal izango dira.



38. artikulua: Ordainketa agintzea.

1. Ordainketaren agintzaileak, onartu eta likidatutako betebeharrak erantzuteko dagokion ordainketa-agindua ematen dueneko egintza da ordainketa agintzea.
2. Ordainketa agintzea alkatearen eskumena da, baina eskuordetzeko aukera du.
3. Erakunde autonomoetan, ordainketa agintzeko eskumena erakundearen zuzendaritza-kontseiluko lehendakariari dagokio.
4. Ordainketa agintzea, orokorrean, Ogasun Sailak egingo dituen ordainketa-aginduen zerrendetan oinarrituz egingo da, alkateak diruzaintzako funtsez baliatzeko ezarritako planari jarraituz, eta, edonola ere, behar den lehentasuna emango zaio zor publikoaren interesak eta kapitala, pertsonaleko gastuak eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharrak ordaintzeari.
5. Ordainketaren izaerak edo premiak hala eskatzen badu, ordainketa horren agintzea banaka egin ahal izango da, dagokion kontularitza-agiria sortuta.
6. Ordainketa-aginduak ematerakoan, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dira.

39. artikulua: Administrazio-prozedura.

1. Kontratazio-dosier bat egin behar zaien gastuetan, dosierra hastean RCA kontabilitate-agiria izapidetuko da, proiektuan edo baimendutako zerbitzu teknikoek egindako aurrekontuan aurreikusitako kostuaren zenbateko berberaz.
2. Eskumena duen organoak kontratazio-dosierra onesten duelarik, A kontabilitate-agiria izapidetu beharko da.
3. Esleipenduna eta gastuaren zenbateko zehatza ezagutzeari, D kontularitza-agiria izapidetuko da.
4. Hurrenez hurren eta obra, zerbitzua edo hornidura benetan gauzatzen den heinean, O kontularitza-agiri egokiak izapidetuko dira.

40. artikulua: Xedatzea eta eginbearra (DO).

Gastuak konprometitzeko eta betebeharrak onartzeko faseak konbinatzen dituzten eragiketak islatzen ditu DO kontabilitate-agiriak. Agiri horiek indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari buruzko ondorengo eragiketa hauek besterik ezin izango dituzte euskarritu:

- Baimendutako kredituei buruzko konpromisoa eta betebeharraren onarpena.
- Adierazitako eragiketak deuseztatzeke, alderantzizko izaera duen DO/ agiria erabili beharko da.

41. artikulua: Baimentzea edo xedatzea eta betebeharra (ADO).

1. Ondasun zehatzak erostek, baita betebeharrak betetzea berehala eska daitekeen kontratazio-prozesuei lotuta ez dauden beste gastu batzuek ere, ADO agiria izapidetzea eragingo dute.
2. Talde honetakoak dira:
 - Material txikia erostea.
 - ACOS (kutxa finkoko aurrerakina edo antzekoa) eta FAS (fiskalizatu gabeko fakturak) dosierrak.
 - Berandutze-interesak.



- Bestelako finantza-gastuak.
 - Hitzartutako maileguen interesak.
 - Hainbat gastu.
3. Udal eraikuntzetan konponketak eta mantentzea egiteko material txikia erosteak; zahar-etxeetan, Harrera Sozialerako Udal Zentroan eta abarretan hartutako pertsonak mantentzeko gastuek... horiek guztiek, ekitaldiaren hasieran, dagokien kreditu-atxikipena eragingo dute, kontsumoetarako aurreikusten den zenbatekoan, erreserba egokia ziurtatzearen. Ordainagiri edo fakturak aurkeztean, ADO agiria izapidetuko da.
 4. Tokiko Gobernu Batzarrak, bere eskumenez baliaturik, obren edo horniduren kontratuak nahiz zerbitzu publikorako eta laguntza teknikorako kontratuak esleitutakoan, gobernu-arloetako dagokien zinegotzi ordezkariari —eta, berreskurapenaz, alkate lehendakariari— eskumena ematen zaie horiek exekutatzeko eragindako obra-egiaztagiriak, fakturak eta beste onets ditzaten, kontratu bakoitzeko edukia osoz osotasuna edo zati bat izanda ere.

Esan gabe doa automatikoki berreskuratze-egintza aplikatzen dela alkate lehendakariak beretzat hartzen dituenean, aurrez, edonolako kontabilitate-agiriak izenpetzearekin lotuta gobernu-arloetako zinegotzi ordezkariari eskuordetutako eskumenak. Zinegotzi ordezkariak ez daudenean edo behar bezala justifikatutako larrialdiren bategatik aplikatuko da berreskuratze-egintza.

42. artikulua: Langile-gastuak.

I. kapituluko gastuei dagokionez, arau hauek bete beharko dira:

1. Udalbatzak aurrekontu-plantilla onesteak oinarriko ordainsarien eta osagarrien ondorio den gastua baimentzea ekarriko du berekin.
2. Hileko nominekin ADO agiriaren zeregina beteko dute, ordainketa-aginduaren ondorioetarako emango baita, arau hauetako 41. artikuluan aurreikusitako moduan.
3. Gizarte Segurantzako eta Elkarkidetzako kuotei dagokienez, ADO agiria izapidetuko da hilero, egindako kotizazioen zenbatekoan. Aldakuntzarik gertatuz gero, agiri osagarriak edo alderantzizkoak izapidetu beharko dira.
4. Sortzen diren gastuak aldakorrak badira —aparteko zerbitzuak, kalte-ordainak eta abar—, dagozkien ADO agiriak izapidetuko dira.

43. artikulua: Ekarpinak eta dirulaguntzak izapidetzea.

1. Eskumena duen organoak dirulaguntza jakin bati dagokion transferentzia egin edo hitzarmen bat formalizatu aurretik, RCA kontabilitate-agiria izapidetu beharko da, proposatzen den gastua egiteko kreditu egoki eta nahikorik badela egiaztatzeko.
2. Beste administrazio batzuei nahitaez egin beharreko transferentzien kasuan, ekitaldi-hasieran zenbatekoa ezaguna bada, AD agiria izapidetuko da.
3. Nahitaezko transferentziaren zenbatekoa ezaguna ez bada, aurreikusitako zenbatekoan eskatu beharko da kreditu-atxikipena.
4. Aurrekontuan onuraduna berariaz adierazita daukaten dirulaguntzek AD agiria izapidetzea ekarriko dute, ekitaldiaren hasieran.
5. Beste dirulaguntza batzuek A dokumentua sortuko dute onartzen diren unean, eta D agiria ematen diren unean.
6. Edonolako dirulaguntza ematen delarik ere, hartarako onetsitako araudiaren arabera jokatu da.



7. Onuraduna zordun bada, zorra ordaintzeko epea igarota izaki, eta hura garbia eta galdatu beharrekoa, Udalak zorra kredituaren bidez konpentsatzea erabakiko du.
8. Udalaren merkataritza-sozietateetara egiten diren transferentzia arrunten kasuan, betekizuna izango da, kudeatzen jarraitzeko, Udalaren funtsak lortzeko premia dokumentazioa aurkeztuz justifikatzea. Zehazki, agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) Sozietatearen Diruzaintzaren Plana, hilabete mailan, aurreko hiru hilabeteetako Diruzaintza Gastuak adierazten direla.
 - b) Ekitaldiko aurrekontuaren exekutatzea, eskaria egiten den egunean.
 - c) Haren funts likidoak eta beste edozein finantza-aktibo gordeta dauden finantza erakundeen laburpena.
 - d) Finantza-pasiboen eta hartutako kreditu kontuen egoera eta exekutatze maila.

Inbertsioak finantzatzeko transferentziak direnean (**kapital transferentziak**), alderdi hauek justifikatu beharko dituzte:

- a) Inbertsioaren xedea / Haren justifikazioa.
- b) Haren kopurua.
- c) Udalak inbertsioan zein kopurutan parte hartzen duen, edo zenbatean finantzatzen.

Udaleko Kontu Hartzailera Nagusiak edozein unetan eskatu ahal izango dio sozietateari funtsak modu egokian baliatu direla egiaztatzen duten agiriak nahiz kontularitza-euskarria aurkezteko. Modu ezegokian aplikatu direla ikusiz gero, Udalak erantzukizunak eskatu ahal izango dizkie sozietatearen kudeaketaz arduratzen diren zuzendaritza-organoei.

44. artikulua: Inbertsio-gastuak.

1. Inbertsio berrirako gastuak baimendu, eta handitzeko eta hobetzeko gastuak baimendu ahal izateko, alde aurretik legediarekin bat datozen aztertu beharko da.
2. Dosierrean, beti ere, agiri hauek sartu beharko dira:
 - Proiektua, planoak eta oroitidazkia.
 - Aurrekontua, kostu osoa barne hartzen duela. Urbanizazio-obra egin behar izanez gero, horien kostua balioetsiko da.
 - Baldintza-agiria.
 - Amortizazioa, aurreikusten den bizialdi erabilgarria arrazoiturik.
 - Geroagoko ekitaldietan izango diren funtzionamendu- eta kontserbazio-gastuen aurreikuspena. Geroagoko urteetan gastu horiek estali ahal izango diren aztertze, zenbateko horiei buruz kontu-hartzaileak egindako txostena beharko da.
 - Aurrekontu-aplikazioko proposamena.
 - Baldin eta jarduketak geroagoko ekitaldietan inbertsioak egiteko konpromisoak badakartza, kontu-hartzaileak konpromisoazko gastuei buruzko arauak betetzen direla esanez horren alde emandako txostena beharko da.
3. Sail kudeatzaileek VI. kapituluaren sartzan diren egitasmoak (inbentarioan jasotzekoa ez den materiala erostea izan ezik) gauzatzeko egutegi bat aurkeztu beharko dute. Egutegi horretan gutxienez ondorengo datu hauek agertu beharko dira:
 - Proiektua enkargatu eta bukatzeko datak.
 - Proiektuaren onespenezko data.
 - Esleipenezko data.



- Obraren hasiera-data.
- Lehen ziurtapenaren data.
- Gastua exekutatzekeo plana.
- Obra entregatzeko data.

45. artikulua: Justifikatu beharreko igorpenak.

Ordainketa-agindu bat ematean horri dagozkion agiriak aurkezterik ez badago, "justifikatu beharrekoak" izango dira, eta dagozkien aurrekontu-kredituei aplikatuko zaizkie.

Baimentzea alkateari dagokio, baina eskuordetzeko aukera du.

Ordainketa-agindu horien hartzaileak jasotako kopuruen erabilera gehienez ere hiru hilabeteko epean justifikatzera behartuta egongo dira. Justifikazio hori, betiere, ekitaldia itxi aurretik egin beharko da. Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen erantzukizun-erregimenaren menpe egongo dira hartzaileak.

Justifikazioaren forma eta edukiari doakionez, Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren jarraibideei men egingo zaie. Kontuan hartuko da, betiere, funtsak onartu ziren helbururako besterik ezin izango direla erabili, eta egiaztagiriek jatorrizko agiriak izan behar dutela.

Inolaz ere ezin izango zaie aurrekontu-kontzeptu berberengatik justifikatu beharreko ordainketa-agindu berririk eman oraindik ere justifikatzeke dauden funtsak beren esku dauzkaten hartzaileei. Funtsak zaintzearen erantzule hartzailea izango da.

46. artikulua: Kutxa finakoaren aurrerapenak.

1. Aldizkakoak diren edo errepikatzen diren beharriazko erantzuteko justifikatu beharreko funtsak igorriko dira. Funts horiek kutxa finakoaren aurrerapena izango dira. Funts horien hartzaileek aurrerapena eratu zen aurrekontu-ekitaldian hartutako kopuruen erabilera justifikatu beharko dute.
2. Alkateak, edo hark eskuordetutako zinegotziak, ondorengo gastu hauetaz arduratzeko gaitutakoei funtsak ematea baimendu ahal izango du:
 - Materiala konpontzea eta kontserbatzea.
 - Inbentarioan jasotzekoa ez den material arrunta.
 - Protokolo- eta ordezkari-tasak beharriazkoak.
 - Lokomozio- eta garraio-tasak eta -gastua.
 - Ongintzako eta asistentziako beharriazkoak.

Nolanahi ere, baimen horiek ezingo dira izan aplikatzen zaizkien aurrekontu-aplikazioko kredituaren % 25etik gorakoak.

Baimenaren barruan, betiere, hiruhilabeteko bakoitzean Ogasun Sailari aurrerapen horien kontu emateko egin beharra azalduko da, bai eta eragiketa horiek kontabilizatzeko arauak ere. Ez da funts aurrerapen berririk emango harik eta aurrekoak erabat justifikatuta egon arte.

Dirulaguntza izendunak ezingo dira alde aurreko izapidetzea dela medio gauzatu.

47. artikulua: Kredituak deuseztatzea.



1. Gasteizko Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuan sartutako ordainketa-kredituen artean aurrekontu-ekitaldiaren azken egunean ekitaldi horretan sortutako eginbeharrak betetzera lotuta ez daudenak erabat deuseztatuak geratuko dira, kredituak eransteari buruz xedatutakoa salbu.
2. Aurrekontu-ekitaldiko azken egunean erabili gabe dauden konpromiso-kredituak erabat deuseztaturik geratuko dira, kredituak eransteari eta luzapen-erregimenari buruz xedatutakoa salbu.

IV. KAPITULUA. AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

48. artikulua: Ekitaldia ixtea.

Ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko dira, egun horretaraino kitatutako eskubideen eta sortutako eginbeharrei dagokienez.

Aurrekontuaren likidazioa ixteko prozesua errazteko, erakundeko lehendakariak, Ogasun Sailak proposatuta, beharrezko jarraibideak emango ditu gastu-dosierrei eta kreditu-aldakuntzei hasiera emateko denbora-mugak ezartzeko, bai eta kontabilitate-eragiketak erregistratzeko behar den dokumentazioa kontabilitatean jasotzeko ere.

49. artikulua: Dokumentazioa.

1. Gasteizko Udalaren Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzten aurrekontuetako bakoitzari kitatze-agiri hauek dagozkio:
 - a) Kitatze-kontua. Ondorengo hauek osatuko dute:
 - Laburpen kontua.
 - Sarreren egoera-orria.
 - Ordainketa-kredituetako gastuen egoera-orria.
 - Konpromisozko kredituen gastuen egoera-orria.
 - b) Eragindako sarrerei lotutako kreditu-soberakinen eranskina.
2. Aurreko ekitaldietako aurrekontu kitatuen multzoari dagokionez, agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) Ekitaldian gertatutako aldakuntzei, kobratzeko eskubideei eta ordaintzeko betebeharrei buruzko egoera-orria.
 - b) Kobratzeko dauden eskubideak denborarekin gauzatzeko aukeren aurreikuspenari buruzko finantza-azterlana.
3. Beren aurrekontuak Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorretan sartuak dauzkaten erakundeetako bakoitzarentzat, hau aurkeztuko da:
 - a) Ekitaldiko aurrekontu-emaitzen kontua. Indarrean dagoen aurrekontuaren emaitza eta aurreko ekitaldietako aurrekontu kitatuena bereiziko dira.
 - b) Ekitaldiko diruzaintza-kontua. Aurrekontuko eragiketak eta aurrekontuz kanpokoak bereiziko dira. Eta lehendabiziko horien artean, orobat, indarrean dagoen aurrekontuko eragiketak eta aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuaren eragiketak bereiziko dira.
 - c) Diru-kontaketaren eta bankuen akta, ekitaldia ixteko egunean.



50. artikulua: Aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako geldikina.

1. Indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontu-eragiketen emaitza, berez, ekitaldian onartutako eskubideen eta ekitaldian hartutako eginbeharren arteko aldea da. Kitatutako eskubideetan, horien balio garbia hartu behar da, hau da, edozein kausarengatik deuseztatu diren eskubideak kenduta. Onartutako eskubideetan, halaber, balio garbiak hartuko dira, hots, edozein kausagatik deuseztatu diren eginbeharrak kenduta.
2. Aurreko ekitaldietako aurrekontu-eragiketa kitatuen emaitza, berez, ekitaldian ordaintzeke geratutako eskubide deuseztatuen zenbatekoaren eta ekitaldian ordaintzeke geratutako eginbehar deuseztatuen arteko aldea da.
3. Ekitaldiko guztizko emaitza lehen eta bigarren paragrafoetan aipatutako kopuruak batuz lortuko da.
4. Diruzaintzako soberakinez finantzatutako eginbeharren arabera eta gastuei lotutako finantza-baliabideen diferentzien arabera doituko da aurrekontu-emaizta.
5. Diruzaintzako soberakina kalkulatzeko, funts garbiei kobratzeke dauden eskubideak gehitu behar zaizkie, eta ordaintzeke dauden eginbeharrak kendu (guztiak ere, ekitaldiko abenduaren 31n duten kopuruaz).
6. Horrela kalkulaturiko diruzaintza-soberakinari gauzatzeko zail edo ezinezko jotzen diren kobratzeke geratutako eskubideak kenduko zaizkio.

Gauzatzea zail edo ezinezko den eskubideak zehazteko, hauek hartu beharko dira kontuan: zorren antzinatasuna, horien zenbatekoa, zein diru-sarrerara mota den, borondatezko aldian nahiz betearazpen-bidean bildutakoen ehunekoak eta toki-erakundeak ezartzen dituen balorazio-zuhertasuneko gainerako irizpideak. Eskubide bat gauzatzeko zail edo ezinezko jotzeak ez dakar sistematikoki hura deuseztatzea edota kontuetatik baja ematea.

7. Horrela ondorioztatzen den diruzaintzako soberakina doitu egin beharko da gastuei lotutako finantza-baliabideen kasuan.

51. artikulua: Geroko izapideak.

1. Hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen egin beharko ditu Aurrekontu Orokorren likidazioari buruzko agiriak Gasteizko Udalak. Sozietate publikoei aplikagarri zaien araudian bestelako epeak ezarri ahal zaizkie.
2. Aurrekontu Orokorren likidazioa onartzea alkate lehendakariari dagokio. Ogasun Sailaren proposamena tarteko, eta kontu-hartzaile nagusiak beharrezko diren txostena eta fiskalizazioa egin ondoren, jakinaren gainean jarriko du hark Udalbatza.
3. Aurrekontua likidatzean diruzaintzako soberakin negatiboa ateratzen bada, Udalbatzak, egiten duen hurrengo bileran, aurrekontu berriko gastuak sortutako defizitaren zenbateko berean txikiagotu beharko ditu. Gastuak txikiagotzea ezinezko izanez gero, zenbateko horretako kreditu-eragiketa hitzartu ahal izango da, baldin eta araudi honetan zehaztutako baldintzak betetzen badira. Aurreko paragrafoetan ezarritako neurrietako bat ere ez bada onartzen, hurrengo ekitaldiko aurrekontua gutxienez ere defizit hori adinakoa izango den hasierako superabit batez onartu beharko da.
4. Gasteizko Udalak bere aurrekontuen likidazioa onartu eta hurrengo hila bukatu aurretik, likidazio horren kopia bidali beharko dio Arabako Foru Aldundiari.



V. KAPITULUA.- UDAL DIRUZAINZTA ETA FINANTZAKETA

52. artikulua: Esparrua eta kontrola.

Aurrekontuko nahiz aurrekontuz kanpoko eragiketetatik eratorritako finantza-baliabide guztiek (dirua, baloreak nahiz kredituak izan) osatzen dute Gasteizko Udalaren Diruzaintza.

1. Kapitulu honetako arauak aplikagarri izango zaizkie udal honen menpeko erakunde autonomoi.
2. Diruzaintzako baliabideak eta horien aldaketak kontu-hartzailearen kontrolaren eta kontabilitate publikoko erregimenaren menpe izango dira, ezartzen diren baldintzetan.

53. artikulua: Funtzioak.

Organikoki Ogasun Sailaren barruan dagoen Gasteizko Udalaren Diruzaintzari ondorengo egiteko hauek dagozkie:

- a) Eskubideen diru-bilketa egin eta betebeharrak ordaindu.
- b) Kutxa bakarra izatearen printzipioaren alde lan egitea. Horretarako, Udalaren beraren nahiz erakunde autonomo eta udal sozietateen aurrekontuko nahiz aurrekontuz kanpoko eragiketen ondorioz sortutako funts eta balore guztiak zentralizatuko ditu.
- c) Eginbeharrak beren garaian betetzearren, diru-baliabideak denboran nola banatu analizatzea.
- d) Gasteizko Udalak konprometitutako abalei erantzutea.
- e) Aurretik aipatutakoetatik eratorritako edo horiekin lotutako gainerako lanak egitea.

54. artikulua: Diruzaintzako funtsak.

1. Gasteizko Udalak diruzaintzako finantza-zerbitzuak hitzartu ahal izango ditu kreditu- eta aurrezki-erakundeekin, honako kontu-motetako edozein irekita:
 - a) Sarrera eta ordainketetarako kontu operatiboak.
 - b) Diru-bilketarako kontu mugatuak.
 - c) Ordainketarako kontu mugatuak.
 - d) Gordailu eta bermeetarako kontuak.
 - e) Diruzaintzako soberakinak jartzeko finantza-kontuak.
 - f) Besteren funtsak, izaera sozialekoak, gordetzeko kontuak.

Gasteizko Udalak, orobat, eguneroko eragiketetarako funtsak gordetzeko eskudiruzko kutxak izatea baimendu ahal izango du. Eskudiruzko kutxa horiek arauen bitartez ezartzen diren mugen menpe izango dira.

2. Udalaren beraren eta menpeko erakundeen funts likidoen erabateko kudeaketa zentralizatu ezarri ahal izango du Udalak, udal sektoreko funts likidoen soberakinen errentagarritasun handiagoa lortze aldera, eta finantza kostuak murriztu ahal izateko. Kudeaketa zentralizatu horrek



Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan diruzaintza-eragiketei dagokienez ezarritako erregimen juridikoa errespetatuko du, baita toki erakundeen diruzaintza arautzen duten gainerako lege-arauak ere.

3. Araudi honen ondorioetarako, gordailutzat joko dira fidantza, bermea, kontsignatzea eta antzeko eragiketak eratzen dituzten funts eta balore guztiak, baldin eta horien onuraduna ondorengo hauetako bat baldin bada:
 - a) Gasteizko Udala eta beraren erakunde autonomoak.
 - b) Beste erakunde publiko nahiz partikularrak, indarrean dagoen zuzenbideko antolamenduari jarraituz Gasteizko Udalaren zaintzapean jarri behar badira.
4. Gordailutzat jotako funtsak Gasteizko Udalaren Diruzaintza osatzen duten gainerako funtsetatik bereizitako kontuetan jarri ahal izango dira.
5. Gasteizko Udalaren Diruzaintzak irekitako kontuek "Gasteizko Udalaren Diruzaintza" izena izango dute. Egoki baldin bada, kontuen edukia modu zehatzagoan islatuko duen adierazpideren bat gehi dakioko.
6. Udalaren baliabideak une bakoitzeko kobrantza- edo ordainketa-beharretara ahalik eta modu eraginkorrenean egokitzeko, Gasteizko Udalaren titulartasuneko banku-kontuen arteko eskualdaketa-eragiketak egin ahal izango dira. Eragiketa horiek (diruzaintzako barne mugimenduak) banku-saldoak udal erakundearen beraren kontuetan birsailkatzea eta banatzea baino ez dute ekarriko, dirua sartu edo atera gabe.

Mugimendu horien kudeaketa arintzeko eta eragiketen legezkotasuna eta kontrola uneoro bermatzeko, Udalaren Diruzaintzako eta Kontu Hartzaitzako organoen titularrek sinatu beharko dituzte horien euskarri diren dokumentuak, edo, hala badagokio, haien ordezkoeak.

55. artikulua: Kobrantza- eta ordainketa-metodoak.

1. Gasteizko Udalak bere baliabideak biltzearen emaitza sartzeko arau espezifikoak eman ahal izango ditu. Diru-sartzea eskudiruz, transferentziaz nahiz ordaintzeko ezartzen den beste edozein bide edo agiriz egin ahal izango da, eskudiruzko kutxetan nahiz kreditu-entitate laguntzaileetan, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorrean eta gainerako araudian xedatutakoaren ildotik.
2. Halaber, aurreko paragrafoan aipatutako edozein ordainketa-bidetatik ordaindu ahal izango ditu bere eginbeharrak. Arau orokorra bere obligazioak banku-transferentzia bidez ordaintzea izango da, eta eskudirutan ordaintzea hondar-izaerarekin bakarrik onartuko da, dosierrean justifikatzen delarik.
3. Aurre-ordainketako txartelen erabilera ezarri ahal izango du Gasteizko Udalak, sailek justifikatu beharreko ordainketen bidez egiten dituzten eragiketetan eskudiruaren erabilera mugatzeko. Horretarako, prozedura hau ezartzen da:
 - Aurre-ordainketako txartel bat emango da Udalaren izenean, eta sail kudeatzailean izendatzen den pertsona ageriko da bertan onuradun gisa. Txartela onuradunaren zaintzapean geratuko da.
 - Sail kudeatzaileak ADOJ kontabilitate-dokumentua izapidetuko du, aurreikusitako gastuaren zenbatekoarekin. Dokumentu horretan honako hauek adieraziko dira:



- Hirugarrena: txartela kudeatzen duen funtzionarioa.
- Oharrak: Txartela.
- Banku-txartela diruzaintzako kontutik kargatzeko eskabidea egingo du Diruzaintzak, eta diruzainak, kontu-hartzaileak eta Ogasuneko zinegotziak sinatuko dute.
- Kudeatzaileak txartelaren saldoaren kontura egingo ditu ordainketak, eta, ondoren, kontabilitate-justifikazioa izapidetuko, eskudiru-ordainketetarako bezala.
- Urtea ixtean, eta Diruzaintzak ezartzen duen data baino lehen, justifikatu gabeko zenbatekoa itzuli egin beharko da, eta txartelaren saldoa hustu. Horretarako, dagokion justifikazioa eta itzulketa izapidetuko ditu sailak sisteman.

56. artikulua: Jasotako abalak eta bermeak.

1. Bermeak eskudirutan eratu ahal izango dira, edo baloreak, abalak edo kauzio-aseguruak ordeztzen dituzten agiriak gordailu utziz, aplikatu beharreko araudian hala aurreikusita dagoen baldintzetan eta kasuetan.
2. Sail kudeatzaileek ematen dituzten sarrera-aginduen bitartez jasoko dira eskudiru-bermeak, Udalak ezarritako prozedurari jarraikiz. Eskudirutan jarritako bermeak eurotan eratuko dira, eta ez dute inolako interesik sortuko.

Baloretan, abaletan edo kauzio-aseguruetan eraturako bermeek Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

9

9

9

9

9

57. artikulua: Eskumena.



1. Alkateari edo Ogasuneko zinegotzi ordezkariari dagozkio funts eta baloreen egoerarekin, eskubideak biltzearekin, eginbeharrak ordaintzearekin eta, zentzurik zabalenean, Gasteizko Udalaren Diruzaintzako gainerako gaiekin zerikusirik duten aginpideak, araudi honetan agindutakoari jarraituz.
2. Kontuak ireki eta ixtea, kontuetako mugimenduak eta kontuen kasuan kasuko funtzionamendua agintzea alkatearen edo Ogasuneko zinegotziaren eskuetan izango da.
3. Udal Diruzaintzako funtsak erabiltzeko, ezinbestekoa izango da alkateak —edo hark eskuordetutako zinegotziak—, udal kontu-hartzaileak eta Udal Diruzaintzako arduradunak —edo azken bi hauen ordezekoek—, guztiek batera, izenpetzea.
4. Eskudiruzko kutxak ireki eta ixteko, kasu zehatz bakoitzean kutxa horien funtzionaltasuna erabakitzeko eta kutxaren mugimenduen arduraduna edo arduradunak izendatzeko, betiere, alde zuzenetik nahitaezkoa izango da Ogasuneko zinegotzi ordezkariak, udaleko lehendakariak eskuordetuta, emandako baimena izatea.
5. Aurrekontuez kanpoko diruzaintza eragiketen euskarri diren kontabilitate agiriek Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren izenpea izan beharko dute.

58. artikulua: Diruzaintzako erregistroa.

Gasteizko Udalak diruzaintzako erregistroa eramango du. Erregistroan, Udalak dauzkan kontu eta kutxa guztiei buruz, honako datu hauek jasoko dira:

- a) Kontu edo kutxa mota.
- b) Izendapena.
- c) Titulartasuna.
- d) Kokapena eta identifikazioa. Kontuak direnean, kasu bakoitzean kontu-zenbakia, banku, finantza edo kreditu-erakundea eta sukurtsala adierazi beharko dira.
- e) Zaintzeko arduraduna edo arduradunak.
- f) Mugimenduen arduraduna edo arduradunak.
- g) Kontu edo kutxa horiei buruz emandako ebazpenak.
- h) Ordain gordina eta atxikipenik daukan ala ez.
- i) Alkatearen edo Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren erabakiz ezarritako beste edozein datu.

59. artikulua.- Diruzaintzako finantza-plana.

Ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Ogasun Sailak finantza-plan baten arauak landuko ditu, non, udal kontabilitatearekin, diruzaintzarekin eta egiturekin koordinaturik, gutxienez hilabete natural baten aldizkakotasunez egin beharreko ordainketak eta kobrantzak zehaztuko diren.

Arau horiek Udaleko sail guztiek, erakunde autonomoek eta udal aurrekontuaren transferentziak jasotzen dituzten udal sozietate anonimoek bete beharrekoak izango dira, zeinek garaiz bidali beharko baitute kontzeptu horiek direla eta Ogasun Sailak eskatzen dien informazioa.

Urtean behingo, hiru hilean behingo eta hilean behingo aldizkakotasuna izango du finantza-planak.

Udal sozietate anonimoek eta erakunde autonomoek beren diruzaintzako aurrekontua egin beharko dute, Udalaren finantza-plana landu eta exekutatze arauetan haiei dagokienez adierazten diren jarraibideak aintzat harturik, eta bai hori bai egiaztapen-agiriak Ogasun Sailera igorri beharko dituzte.



Udal aurrekontuetan sozietateei egitea aurreikusten den transferentziak Diruzaintzako aurrekontua eta transferentzien benetako betetze-maila aintzat harturik ordainduko dira. Halaber, aldi-aldi bidali beharko dituzte finantza-kontuen eta diruzaintzako kontuen saldoen txostena —edonola ere, transferentziak ordaintzeko eskabidea egin aurretik— eta Udal Diruzaintzaren kudeaketa egoki eta eraginkorrerako eskatzen zaien informazioa.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eta kontabilitate-argibideak eskatu ahal izango ditu Udalak, Ogasun Sailaren bitartez, udal sozietateen eta udal aurrekontuaren transferentzia arruntak edo kapital-transferentziak jasotzen dituzten erakunde autonomoen aurrekontua nola exekutatzen den egoki jarraitzeko, koordinazioari dagokionez, udal gastu publikoa modu egokian egin dadin. Ogasuneko zinegotzi ordezkariak beharrezkotzat jotzen dituen aginduak eman ahal izango ditu horretarako.

60. artikulua: Kreditu-eragiketak.

Kontzertu Ekonomikoa onetsi zeneko Legearen 48. artikuluan xedatzen denez, toki-erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagokie; horrek ez du esan nahi, inola ere, Euskadiko toki-erakundeen autonomia araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa izango denik.

Bestalde, Arabako Lurralde Historikoko Erakunde Antolakuntzari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 6. artikulua arabera, Batzar Nagusiei dagokie toki-korporazioen finantza-tutoretzaren erregimen orokorra arautzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak izango du eskumena, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak hala proposatzen diolarik zorpetze-eragiketak onesteko, bai epe motzera, bai luzera. Arabako Foru Aldundiak Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitako moduan baimena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak finantza-eragiketa hauek hitzartu ahal izango ditu:

- c) Aurreko aurrekontu ekitaldietan formalizatutako zorren operazioak berriro finantzatu, amortizatu edo aldatu, beti ere Gasteizko Udaleko edo finantza merkatuko finantza egoeren aldaketek eragin badituzte.
- d) Aldez aurreko zorpetze-eragiketak nahiz Aurrekontuak Exekutatzeke Udal Araudi honen ildotik egiten direnak direla eta, borondatezko trukeak, konbertsioak, luzapenak, truke finantzarioak, aseguratzeak eta antzeko eragiketak hitzartzea, horien kostua —egungoa nahiz gerokoa— hobetzerazuzenduta badaude.

Mailegu-kontratuek eta diruzaintzako eragiketek —baloreen edo bestelako finantza-tresnen salmenta, erosketa edo transferentziarekin zerikusia izan ala ez— Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 10. artikulua aplikazio-eremutik baztertutako negozioen izaera dute, baina, nolana ere, foru-araudian adierazitako gehieneko kopuruetan eta Udalarentzat onuragarrien diren finantza-baldintzetan hitzartuko dira, kaudimen-, publizitate-, konkurrentzia- eta gardentasun-printzipioek gidatuko duten prestakuntza- eta esleipen-prozesua jarraituz, indarrean dagoen araudiaren arabera dena delako eragiketa motarako egoki denaren arabera.

Artikulu honetan xedatutakoa exekutatzeke hartzen dituen erabakiak Udalbatzari jakinarazi beharko dizkio Tokiko Gobernu Batzarrak, erabakia hartu ondoren egiten den lehenengo bilkuran.

Aurrekontuak Gauzatzeko Udal Araudi honetan aurreikusitako epe luzeko edozein kreditu mota ituntzeko, indarrean dagoen behin betiko aurrekontuan sartu beharko da, edo aurrekontu-luzapenean, halakorik bada.

Edozein eragiketa hitzartzeko edo aldatzeko, aldez aurretik kontu-hartzailearen txostena beharko da. Txosten horretan bereziki aztertuko da toki-erakundeak eragiketa horietatik eratorritako betebeharrei



denboran zehar aurre egiteko duen gaitasuna, eta horrek aurrekontu-egonkortasunean eta finantza-jasangarritasunean duen eragina.

Toki-korporazioek sinatzen dituzten kreditu-eragiketa guztiak, bai eta abalak edo bestelako berme publikoak ematea ere, finantza-zuhurtasunaren printzipioaren mende daude. Finantzen arriskua eta kostua minimizatzeko bete behar diren baldintzen multzoa da finantza-zuhurtasuna.

Artikulu honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauetan xedatutakoari jarraituko zaio: Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina, irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartua, eta Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena.

60.1 Epe laburrera zorpetzea.

Udalak, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak hala proposaturik eta Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki arrazoitua dela medio, aldi baterako finantziazio-premiei erantzuteko behar diren diruzaintza-eragiketak hitzartu ahal izango ditu edozein finantza-erakunderekin, finantza-merkatuetan horretarako dauden formuletak edozein baliaturik, baldin eta horien zenbatekoak likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arruntengatik % 30a gainditzen ez badu eta amortizazio-epea urtebetetik gorakoa ez bada, irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailean xedatutakoaren ildotik.

60.2 Epe luzera zorpetzea.

Indarrean dagoen Foru Araudian (38/2013 Foru Araua eta 1/2021 Foru Dekretu Arauemailea) zehaztutakoaren arabera, toki-korporazioek sinatzen dituzten kreditu-eragiketa guztiak, bai eta abalak edo bestelako berme publikoak ematea ere, finantza-zuhurtasunaren printzipioaren mende daude. Finantzen arriskua eta kostua minimizatzeko bete behar diren baldintzen multzoa da finantza-zuhurtasuna, Arabako Toki Erakundeetarako 349/2016 Foru Aginduan xedatutakoari egokitua.

Ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen Aurrekontuen Foru Arauan xedatutakoaren arabera arautuko dira zorpetzearen mugak.



- a)
- b)
- c)
- d)

60.3 Aseguratze-eragiketak.

Tokiko Gobernu Batzarrak baimena eman ahal izango dio Ogasuneko zinegotzi ordezkariari finantza-merkatuen baldintzen arabera eskatutako maileguak aseguratze eragiketak hitzartzeko, interes-tasen gorabeheren ondorioak eragotzi edo txikitzearren, muga hauekin:

- Bost urte edo gutxiagoko eperako.
- Formalizatutako kopuruen % 50 gainditzen ez duten kopuruetarako.
- Hiruhileko Euriborraren 150 bp. gainditzen ez dituen tasarako, Europako Bankuen Federazioak (FBE) hiru hileko euro gordailuentzat kalkulatu duenaren arabera —Bruselako orduan, gutxi gorabehera goizeko 11:00etan, REUTERSen EURIBOR 01 orrian, eragiketa egiten denaren aurreko egunean argitaratzen dena—.

60.4 Abal eta bermeak ematea.

Toki-entitate bakoitzak baimendutako abalen edo bestelako bermeen guztirako zenbatekoa ezin daiteke handiagoa izan aurre-aurreko ekitaldian —edo, halakorik ez bada, aurrekoaren aurretikoan zenbaketa urteko lehen sei hilekoan egin behar bada eta ez bada artean likidatu hari dagokion aurrekontua— likidatu edo sortu diren diru-sarrera korronteen ehuneko 30 baino, kontabilitate egoera bateratuetatik ondorioztatzen diren kopuruen arabera.

Muga hori zenbatzeko, kontuan hartuko dira urte bakoitzeko abenduaren 31n dauden abalen eta gainerako bermeen zenbateko nominala gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako abal-baimenak.

Toki-erakundeek ezingo dute abalik edo bestelako berme-eragiketarik itundu horien hedadura, edozein kontzpturengatik, aurreko apartatuan adierazitako moduan definitutako diru-sarrera arrunten ehuneko 15 baino gehiago bada.

Eragiketaz eragiketa zenbatuko da muga hori. Hala ere, pertsona fisiko edo juridiko berari edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera sozietate talde bera osatzen duten entitateetako edozeini toki-erakundeak urte naturalean ematen dizkion bermeak eragiketa bakartzat hartuko dira muga hori zenbatzeari dagokionez.

Era berean, kontuan hartu beharko dira Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginak —martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— 49. artikuluan ezarritako mugak.



VI. KAPITULUA. GASTEIZKO UDALEKO KONTABILITATEA

61. artikulua: Erregimen aplikagarria.

Gasteizko Udaleko Administrazioa, haren erakunde autonomoak eta haren menpe dauden sozietate publikoak kontularitza publikoko erregimenaren menpe daude, araudi honetan eta aplikagarri zaion gainerako legedian xedatutakoaren arabera.

Kontabilitate publikoko erregimenaren menpe egoteak berekin dakar erakunde horren izaera guztietako eragiketen kontu eman beharra izatea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

Kontu Hartzaile Nagusiak fiskalizatuko du kontabilitatea nola eramaten den, eta jarraibideak edo irizpideak emango.

62. artikulua: Kontabilitatearen helburuak.

Gasteizko Udalaren aurrekontu-kontabilitatea bere gestioko funtsezko elementu den Ogasun Sailaren menpe egongo da, eta baliabide publikoak al bait hobekien kudeatzeko, zerbitzuen kostua ezagutzeko eta helburu hauek lortzeko moduan antolatuko da:

- Udal erakundearen balantzea ezartzea, erakunde horren ondarearen osaera eta egoera, bai eta izandako aldakuntzak ere, agerian jarrita.
- Ekonomiaren eta ondarearen ikuspegitik kudeaketaren emaitzak zehaztea.
- Emaitza analitikoak zehaztea, zerbitzuen kostua eta errendimendua agerian jarrita.
- Udalaren Aurrekontu Orokorren exekutatzea erregistratzea, aurrekontuemaitzak agerian jarrita.
- Udal Diruzaintzaren mugimenduak eta egoera erregistratzea.

- Erakundearen kontu orokorra eratzeko behar diren datuak ematea, bai eta ondorio egokietarako egin beharreko kontu, egoera-orri eta agiriak eratzeko behar direnak ere.
- Ekonomi eta finantza-estatistikak egiteko behar diren argibideak ematea.
- Euskal sektore publikoaren kontuak egiteko behar diren datuak eta gainerako aurrekinak ematea.
- Bai politika eremuan bai kudeaketa eremuan erabakiak hartzeko behar diren ekonomi eta finantza argibideak ematea.
- Legezketasun, eraginkortasun, efizientzia-, finantza eta antolaketa-kontrolak egin ditzaten ahalbidetzea.



- Gasteizko Udalarekin harremana duten interesdunen ibilgetu materialaren, immaterialaren eta finantzarioaren inbentarioa eta kontrola, zorpetzearen kontrola eta zordun edo hartzekodun egoeraren banakako segimendua ahalbidetzea.

63. artikulua: Kontabilitate-indarraldia.

Aurrekontu-ekitaldiarekin bat etorriko da kontabilitate-ekitaldia. Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bitartez arautuko dira Kontabilitate Zerbitzuan kontabilitate-agiriak jasotzeko datak, ekitaldiko kontabilitatea eta aurrekontua ixteari dagozkionez.

64. artikulua: Urteko egoerak eta kontuak.

1. Aurrekontu-ekitaldia amaitzean, ekitaldi osoan egindako aurrekontuko, aurrekontuz kanpoko, ondareko eta diruzaintzako eragiketa guztiak erakutsiko dituen kontu orokorra eratuko da, zeinak osagai hauek izango baititu:
 - a) Ekitaldi-itxierako egoeraren balantzea.
 - b) Ekitaldiko emaitzen kontua.
 - c) Urteko finantzaketaren laukia.
 - d) Finantza-egoerei egindako oharren eranskina, non gutxienez ere erakundearen ibilgetuaren, erakundearen finantza-inbertsio iraunkorren, konprometitutako abalen eta finantza-zorren berri emango baita.
 - e) Ekitaldiaren oroitidazkia.
 - f) Aurrekontuen likidazioa.
 - g) Aurrekontu-likidazioko datuen eta kontabilitate orokorrean islatutako datuen arteko harremanari buruzko argibide-eranskina.
2. Gasteizko Udalaren Aurrekontu Orokorretan sartutako erakundeen multzoari dagokionez, orobat, finkatutako finantza-egoerak prestatuko dira, jarraitutako finkatze-prozedura eta egindako doikuntzak xehetasunez azalduta. Ogasun Sailak taxutuko du kontu orokorra, eta kontu-hartzaile nagusiak fiskalizatu eta informatuko, eta ekitaldia bukatzean aurrekontua zenbateraino bete den eta finantza- eta ondare-egoera zein den azaltzen duen txostena egingo.

65. artikulua: Landu eta onesteko prozedura.

1. Gasteizko Udaleko lehendakariak Udalaren egoeren eta kontuen berri emango du dagokion ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen. Udalaren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen egoerak eta kontuak, berriz, horietako bakoitzaren organo eskudunek eman eta aurkeztuko dituzte hasiera batean, eta udal erakundera bidaliko dira epe berean.
2. Ogasun Sailak prestatzen duelarik, Udaleko alkate lehendakariak emango du Gasteizko Udaleko kontu orokorraren berri, eta kontu-hartzaile nagusiak gainbegiratuko; halaber, Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Bereziaren irizpenaren menpe jarriko da maiatzaren 15a baino lehen.
3. Kontu orokorra, Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Bereziaren txostenarekin, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, interesdunek erreklamazioak, erreparoa edo oharrak aurkezterik izan dezaten. Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Berezia arduratuko da horiek aztertzeaz, eta beharrezko irizten dien egiaztapen guztiak egingo ditu. Ondoren, beste txosten bat egingo du.



4. Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Bereziaren txostenekin eta egindako erreklamazio eta erreparoeekin batera, kontu orokorra Udalbatzari aurkeztuko zaio, egoki baldin bada hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 baino lehen onets dezan.
5. Gasteizko Udalak Herri Kontuen Euskal Epaitegiari emango dio behar bezala onetsitako kontu orokorra, berriazko araudiak ezarritako baldintzetan.

66. artikulua: Informazioa.

1. Hiru hilean behin, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Bereziari aurkeztuko ditu:
 - a. Ohiko aurrekontuaren exekutatzeko egoera.
 - b. Transferentzia-erregimenaren bitartez egindako aurrekontu-aldaketaren egoera.
 - c. Onetsitako konpromiso-kredituen proiektuak, ekitaldiari egotzi beharko zaion gastuaren zatia adierazten delarik, baita hurrengo ekitaldiei dagokiena ere, eta urte-kopurua, eta proiektu horiek justifikatzeko oroitidazkia.
 - d. Transferentzia-erregimenaren arabera inbertsio berriak funtzionatzen hasteko baliatutako gastu arruntak finantzatu dituzten kapital-eragiketen kredituak.
 - e. Itxizko gastu nahiz diru-sarreraren aurrekontuaren exekutatzeko egoeraren laburpena.
 - f. Aurrekontuaren kontura ematen diren eta bertan modu izendunean jasota ez dauden edonolako dirulaguntza eta laguntzen zerrenda.
 - g. Egindako finantza- eta zorpetze-eragiketen egoera.
 - h. Aurrekontu-luzapenaren erregimenean funtzionatzen bada, luzatutako kredituen xehetasunak eta luzatutako ekitaldirako aurreikusitako diru-sarreraren aurreikuspenaren xehetasunak —aurrekontu-aplikazioak—, eta bi kontzeptuen arteko finantzaketa-aldea.
 - i. Aurreko letrako suposizio berean, aurreikusitako diru-sarreraren eta luzatutako gastuen arteko alde horri egotziz egiten diren aurrekontu-aldaketak.
2. Ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan, egindako kreditu-txertaketaren egoeraren berri emango dio Ogasuneko zinegotzi ordezkariak Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Bereziari. Salbuespen gisa, martxoaren 30az gerostik egiten badira txertaketak, dena delako hiruhilekoaren barruan bidaliko du korporazioak txertaketaren egoera.
3. Aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, plan finantzarioa bidaliko dio korporazioak Udalbatzari, bertan adierazten dituelarik bai hartutako konpromisoak, bai bidean diren proiektuak finantza publikoetan eragingo duten garapenaren aurreikuspenak ere. Udal sektore publiko osoa barne hartuko du planak.
4. Bi hilean behin, erakunde autonomoen aurrekontuaren exekutatzeko egoeraren berri emango dio Ogasuneko zinegotzi ordezkariak Ogasuneko Batzorde eta Kontuetarako Bereziari, eta hiruhilean behin, berriz, udal sozietate publikoaren finantza-egoeraren berri.
5. Hiruhilean behin, udal sektore publikoko kontratu guztien berri emango dio Ogasuneko zinegotzi ordezkariak Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Bereziari, bertan adierazten dituelarik xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatuzaileen kopurua, esleipendunaren identitatea eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Era berean, kontratuaren atzera egiteko nahi horiei uko egiteko erabakien berri ere helarazi beharko dio.
6. Sei hilean behin, udal sektore publikoko kontratu txikien berri emango dio Ogasuneko zinegotzi ordezkariak Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Bereziari, bertan adierazten dituelarik xedea,



esleipendunaren identitatea eta zenbatekoa.

VII. KAPITULUA. KONTROL KONTU-HARTZAILEA

67. artikulua: Definizioa. Barne-kontrolaren modalitateekiko lotura.

Toki-autonomiaren printzipioan oinarrituta, eta Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren IV. tituluaren ezarritakoa errespetatuz, bai eta apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua (aurrerantzean BKED) eta, hala badagokio, Lurralde Historikoko Sektore Publiko Lokaleko entitateen barne-kontrolaren erregimen juridikoa arautzen duen Foru Dekretua, kapitulu honetako artikuluetan arautzen da barne-kontrolaren erregimena —kontu-hartzailatza, finantza-kontrola eta eraginkortasun-kontrola—.

Barne-kontrolerako zereginak betetzeko, Lurralde Historikoko Sektore Publiko Lokaleko entitateen barne-kontrolaren erregimen juridikoa arautzen duen BKEDaren 5. eta 6. artikuluetan ezarritako betebeharrak eta ahalmenak izango ditu horretaz arduratzen den organoak.

Titulu honetako artikuluetan aurreikusi gabekoari dagokionez, apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatuko da, eta, behar izanez gero, Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren erregimen juridikoa arautzen duen Foru Dekretua.

68. artikulua: Kontu-hartze zeregina, diru-sarrereri dagokienez.

Toki-erakundearen, haren erakunde autonomoen eta, hala dagokielarik, hari atxikitako partzuergoen eskubide eta diru-sarreraren alde aurreko fiskalizazioa ordeztuko dute kontabilitatean arrazoi hartzearen berezko kontrolak eta, behar denean, geroko finantza-kontrolak.

Eskubideak onartzearen edo balio-mugimenduen arloko eragozpenek ez dute etete-ondoriorik izango.

69. artikulua: Kontu-hartze zeregina, gastuei dagokienez.

Toki-erakundearen, haren erakunde autonomoen eta, hala dagokielarik, hari atxikitako partzuergoen gastuen alde aurreko fiskalizazioa fiskalizazio mugatuaren bidez egingo da.

Oinarritzko betekizunen alde aurreko fiskalizazioak honako alderdi edo oinarritzko betekizun hauek egiaztatuko ditu:

- Kreditu egoki eta nahikorik badagoen.
- Organoaren eskumena.
- Gastu-betebeharrak ondorioztat dituen egintzaren erabateko deuseztasuna ekar lezaketen prozedurako irregularitasun larriak hautematen direnean.

Gainera, gastu-betebeharrak ekar litzakeen eduki ekonomikoko egintzaren izaeraren arabera, Gasteizko Udalaren fiskalizazio-gidan aurreikusitako oinarritzko betekizunak egiaztatu ahal izango ditu Kontu-hartzailatza Nagusiak, gaur egun dituen bitartekoak kontuan izanik.

Organo kontu-hartzaileak jatorrizko dossier osoa jasoko du, behin egiaztatutako guztiak bildu eta nahitaezko txostenak egin eta organo eskudunak erabakia emateko gertu dagoelarik, eta bost egun balioduneko epean fiskalizatu beharko du.

Nolanahi ere, ez dira aurretiazko fiskalizazioari lotuta egongo:



- Inbentarioan jasotzekoa ez den materialari dagozkion gastuak.
- 5.000 eurotik beherako kontratu txikiak (BEZa sartu gabe).

70. artikulua: Etengabeko kontrola, gastuen arloan, lagin baten gainean.

Finantza-kontrolaren bidez, auditoretza-teknikak baliaturik, kontu-hartzailletza osoa egin ahal izango da Finantza Kontrolaren Urteko Planean zehaztutako gastu-lagin baten gainean, eta horren emaitzak urteko kontrol-txostenean jasoko dira.

71. artikulua: Eragozpenak.

Organo kontu-hartzaileak fiskalizatzen dituen gastu-dosierretan, arrazoitu beharrik gabe sinatutako eginbidearen bidez adieraziko da adostasuna, eragozpenik jarri ezean.

Eragozpenik jarri gero, BKEDaren 12., 14. eta 15. artikuluetan edo Lurralde Historikoko Sektore Publiko Lokaleko entitateen barne-kontrolaren erregimen juridikoa arautzen duen Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, argigarri izan dadin, eragozpenen ondorioak zehazten dira ondoren:

- Etetea dakarren eragozpena: gastu- edo ordainketa-betebeharrak dakartzaten egintzetarako arau orokorra da, oinarritzko betebeharren bat betetzen ez delarik. Alkateari dagokio altxatzea, edo osoko bilkurari, baldin eta kreditu nahikorik edo egokirik ez izatea bada arrazoa, edo onestea haren eskumenekoa den betebeharrak edo gastuei badagokie.
- Etetea ez dakarren eragozpena: desadostasuna eskubide eta diru-sarrerei dagokienean. Baita betebeharrak edo gastuetan ere, funtsezkoak ez diren akats konpongarriak badira. Halakoetan, eragozpenak ez du tramitazioa etengo, baina betebeharrak onartzeko fasea iristen delarik, eten egingo da hori funtsezkoak ez ziren akats horiek ordurako zuzendu ez badira.
- Oharpenak: oharpenen bitartezko fiskalizazioak ez du etete-ondoriorik izango, eta, halakoetan, ezingo da baliatu ezadostasuna adierazteko prozedura.

72. artikulua: Kontu-hartze zeregina ez egitea.

BKEDaren 28. artikuluan edo Lurralde Historikoko Sektore Publiko Lokaleko entitateen barne-kontrolaren erregimen juridikoa arautzen duen Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

Fiskalizazioa egin ez zaion eduki ekonomikoko egintza bat onartzeko erabakia hartzen badu organo eskudunak, ez da horregatik libre geldituko horrek ekar liezazkiokeen erantzukizunen aurrean erantzutetik.

73. artikulua: Finantza-kontrola.

Finantza-kontrola toki-erakundearen, haren organismo publikoen eta atxikitako partzuergoen gaineko kontrol iraunkorraren modalitatean gauzatuko da, finantza-kontrolaren plangintzan ezarritakoaren arabera.

Kontu-ikuskaritza publikoaren modalitateko finantza-kontrola —kontu-auditoretza, betetze-auditoretza eta auditoretza operatiboa barne— aurreko paragrafoan adierazitakoez bestelako gainerako mendeko erakundearen gainean ere egingo da, salbu eta erakunde autonomoak, zeinak kontu-ikuskaritzaren mende egongo baitira beren kontabilitatea organo kontu-hartzaileak fiskalizatzen ez badu.



BKEDaren III. tituluaren edo Lurralde Historikoko Sektore Publiko Lokaleko entitateen barne-kontrolaren erregimen juridikoa arautzen duen Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik gauzatu da finantza-kontrola.

74. artikulua: Finantza-kontrola planifikatzea.

Urtero, Finantza Kontrolaren Urteko Plana egingo du organo kontu-hartzaileak, eta Udalbatzari horren berri emango. BKEDaren 31. artikuluan edo Lurralde Historikoko Sektore Publiko Lokaleko entitateen barne-kontrolaren erregimen juridikoa arautzen duen Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera izapidetuko du.

75. artikulua: Barne kontrolaren emaitzak.

Urteto, organo kontu-hartzaileak Udalbatzari igorriko dio barne-kontrolaren txostena, lehendakariaren bitartez.

Kontrola egiten den ekitaldiaren hurrengo urteko lehen hiruhilekoan bidaliko da txostena.

76. artikulua: Ekintza-plana

Aurreko artikuluan adierazitako barne-kontrolako txostena bidali ondoren, toki-erakundeko lehendakariak ekintza-plan bat formalizatuko du, gehienez ere 3 hilabeteko epean, BKEDan edo foru-dekretuan ezarritakoaren arabera.

77. artikulua. Udal Kontu Hartzailetzak egin beharreko bestelako txostenak.

Orokorrean, eta Administrazio eskudunei eman beharreko informazioari kalterik egin gabe, aurreko artikuluetan aipatutako kontrol-txostenaz gain, erakunde kontu-hartzaileak nahitaezko txosten hauek igorri beharko ditu:

- a) Erakundearen kreditu- zein zordunketa-eragiketen ezarpenari zein aldaketari buruzko txostena.
- b) Erakunde autonomoen, enpresa-entitate publikoen edo menpeko merkataritza sozietateen epe luzeko kreditu- zein zordunketa-eragiketen ezarpenari buruzko txostena.
- c) Aurrekontu Orokorren Proiektuari buruzko txostena.
- d) Aurrekontu-luzapeneko doikuntzei buruzko txostena.
- e) Aurrekontu-aldaketei buruzko txostena.
- f) Aurrekontuaren likidazioari buruzko txostena.
- g) Aurrekontuaren betearazpenari eta diruzaintzaren mugimenduei eta egoerari buruzko txostenak.
- h) Justifikatu beharreko ordainketen bidalketa eta kutxa finkoko aurrerakinak arautzen dituzten arauari buruzko txostena.
- i) Erregistratu eta Berankortasun Legean ezarritako baldintzetan kontabilizatu ez diren fakturei buruzko txostena, kontularitza-erakundea duten populazio handiko udaletan izan ezik; kasu horietan, txostena aipatutako kontularitza-erakundeari dagokio. Orobat, berankortasunaren aurkako neurrien arauditik ondorioztatutako gainerako txostenak, baldin eta erakunde kontu-hartzaileari badagokio horiek igortzea.
- j) Konpromiso-kredituen eta hainbat urtetarako gastuen mugekiko egokitzapenari buruzko txostena.



- k) Gehiengo kualifikatua eskatzen duten gaiei buruzko txostenak.
- l) Likidatutako ekitaldian aurrekontu-egonkortasuna bete den ebaluatzeko txostena, salbu eta agiri berean aztertzen bada, organo kontu-hartzaileak aurrekontuaren likidazioari buruzko txostenarekin batera.
- m) Kontu Orokorrari buruzko txostena.
- n) Zerbitzu publikoak kudeatzeko zuzeneko moduen erabilerari buruzko finantza-iraunkortasunaren balorazio txostenak, TAOL legearen 85. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.
- o) Lehendakariak edo zinegotzien laurdenak eskatutako txostenak, irizpenak eta proposamenak, ekonomiaren eta finantzen nahiz aurrekontuen arlokoak.
- p) Indarrean dagoen legediak organo kontu-hartzaileari egozten dizkion gainerako txostenak.